

A I A R A L D E A *Jaietan*



2017ko udako jaiak



ABUZTUA • IRAILA
ALDIZKARI BEREZIA

Tirada: 10.000 ale

Doan



www.aiaraldea.eus



info gaztea

Arabako Gazteen Informazio eta
Dokumentazio Lurralde Zentroa



**Behar duzun informazio
guztia pausu batera**

www.araba.eus/gazteria
945 181 700 / 670 281 700
informazioa@gazteria.araba.eus



gazteria *g* **juventud**

- ▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
- ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA



*Udari
eta jaiei klik!*

DENON ESKUTIK, DENON ESKURA

Jaietan egiten dute topo herritar gehienek kalean, dudarik gabe. Udaberrian hasi zen jaien loraldia Aiaraldean, sanprudentzio eta otxomaioekin, eta Zolloko jaiak bitarte iraungo du denboraldiak. Berriro ere jantziko dira ilusioz lagun koadrilak, kultur sorkuntzaz beteko dira bazterrak, oholtzetan dantzari edo kantari ikusiko ditugu eskualdeko artistak, kirolariak... Aiaraldea hedabidean euskaraz jaso eta zabaldu dugu horren guztiaren berri, hainbat multimedia euskarritan: hitzez, argazkiz, bideoz...

Orriotan pilatutako uzta Aiaraldeko norbanako zein eragileek festen alorrean egindako lanaren lagina baino ez da. Paperean bildu ditugu abuztutik irailera herriz herri egongo diren ekintzak eta nobedadeak. Sarean zabaldu dugu historiaren kutxa hamaika ekitaldiren irudi zaharren bildumak osatuta. Aiaraldea.eus atarian duzue eskura agenda guztia, euskaraz izango diren ekintzen atal bereziarekin batera. Gainera, jaien jarraipen bereziaren baitan zuzeneko emisio eta kontakizunak, bideo-kronikak eta beste hamaika kontu nagusituko dira.

Komunikazioak sekulako garrantzia duen garaiotan, interneten eta kalean elikatzen ditugu sare sozialak, Aiaraldeko kultura ezberdinei egin diegu klik, hezkuntzan ekarpena egiteko liburuetatik atera dugu tokiko historia...

Aiaraldea aldatzen ari gara, ez hedabidea bakarrik. Tokian tokiko esperientziak euskaraz partekatuta, sarean edo kalean, egin diezaiogun #udariklik!

JAIK AIARALDEAN 2017 UDAKO ALDIZKARI BEREZIA

Argitaratzailea:

Aiaraldea Koop. Elkarte

Tirada:

10.000 ale.

Lege gordailua:

BI-1230-2013

Erredakzioa:

Aiaraldea hedabideko
erredakzioa

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

Publizitatea:

publizitatea@aiaraldea.eus

Tlfnoa: 618243937

Web-gunea:

www.aiaraldea.eus

Helbideak:

Nerbiol Kalea 12, behea
Laudio. Araba. 01400

Telefonoak:

94 656 85 54

688 848 152

OHARRA:

Aiaraldea hedabideak ez du bere gain hartzen elkarriketetan adierazitakoaren erantzukizuna.



Konpromisoa

gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin




JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar, z/g • 01400 Laudio (Araba)

Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es

AIARAKO HERRIETAKO JAIAK [ABUZTUA / IRAILA]

Egin ditzagun jai ahaztezinak!



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala



Gentza Alamillo
AIARAKO ALKATEA

Urtero bezala, uda heldu zaigu eta berarekin Aiarako hainbat herritako jai egunak ditugu gurekin berriro.

Errutina dibertsioarengatik aldatu eta kalea pozez hartuko dugu, Aiarako herrien jaiak denonak eta denontzat baitira. Gozatu ditzagun, beraz, neurrian. Egun hauek ahaztezinak bilaka ditzagun.

Aiarar guztioi dei egiten dizuegu jaietan elkarbizitzarako horren beharrezkoak diren jarrerak izatera. Elkar errespetatuz, genero, jatorri, adin, kultura ezberdintasunak albo batera utziz.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu jaien antolakuntzan parte hartu duzuen Aiarar guztioi, bai aurre prestaketetan eta baita jaietako ekintzak posible izateko lan egin duzuen guztiei ere. Jai zoriontsuak, kutunak eta armoniatsuak opa dizkizuegu, antolatutako ekintzetan modu aktiboan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, eta espero dugu pozak eta momentu onak egun hauetan arnasa hartzeko balio izatea.

08.08 ASTEARTEA

SANTO DOMINGO

10:00 // **Kalejira**, Luiaondoko txistulariekin



12:00 // Meza, Santo Domingoren ohorez

13:00-14:30 // **Haurrentzako ekintzak**

14:30 // **Herri bazkaria**,



baselizaren zelaian

17:00 // **Briska txapelketa**

18:00 // **"Disko-txiki"** eta malabareak



21:00 // **Odoloste Jana**

22:00 // **Erromeria**: Ganeko taldea

08.09 ASTEAZKENA

20:30 // **Txorizo jana eta disko-festa Oleta jatetxean**



JAIETAKO DAMA

"Ekintza guztietan topera egotea da Damaren funtzioa. Ea gorputzak ahal duen!"



MARIBEL RAMIREZ GARCIA (AMURRIO, 1974) HAUTATU ZUTEN UZTAILEAN "LUIAONDOKO JAIETAKO DAMA" IZATEKO. SAN LORENTZON ETA SANTO DOMINGO FESTETAN EGONGO DA.

"Luiaondoko Jaietako Dama" izateko hautatu zaituzte. Espero zenuen?

Ez nuen espero. Duela bi urte ere proposatu zidaten Dama izatea, baina ezin izan nuen, oporretan nindoalako. Aurten, aldiz, posible dut.

Nola erabakitzen da nor izango den Dama?

Boto bidez aukeratzen da, "Gaztedi Berriak" koadrilako kideen artean; ez da herri osoaren aukeraketa. Duela 45 urte baino gehiago sortu zen koadrila, baina kideak nagusitzen zihoazen heinean albo batera utzi zuten egitasmoa, harik eta 2008an tradizioa berres-

kuratu zen arte; herri-arima eta ondo pasatzeko gogo handitzea. Taldea kultur elkarte bilakatuko dugu laster.

Zein da Damaren funtzioa?

Jaien ekitaldi guzti-guztietan egotea, festaren ordezkaria baita. Goiz jaiki beharko naiz, mezara eta gainontzeko ekitaldietara joateko.

Posible izango duzu ekintza guztietara joatea?

[Barreak] Ba posible izan beharko dut! Alabak nirekin eraman beharko ditut, senarra txosnan egongo delako; baina pozik uztartuko ditut bi ardurak, asteburua denez ez dut lanik egin beharko.

Luiaondoko Jaiak ABUZZTUAK 08-10

Bonboa ere izango duzu esku artean. Entseatu duzu?

Bat ere ez! Baina tira, erakutsi didate nola jarraitu behar dudana erritmoa: pa, pa, papapa! Ea zenbat pisatzen duen instrumentuak!

“Luiaondora bizitzera etorri nintzenean hemengo jaiak ez ninduten bat ere erakartzen, baina orain asko gustatzen zaizkit. Festa txikiak dira, herrikoak”

Duela 15 urte etorri zinen Amurriotik Luiaondora bizitzera. Bilakaerarik sumatu duzu herriko jaietan?

Lehen urteetan hemengo jaiak ez ninduten bat ere erakartzen, ez nuen inor ezagutzen. Baina alabak

jaio zirenean harremanak garatzen hasi nintzen, eta adiskide handiak egin ditut. Jai txikiak dira, herrikoak, baina apurka-apurka badoa jendea animatzen.

“Lo egiteko herria” izateari utzi dio, beraz?

Niretzat bai, gaur egun ez naiz ia herriatik ateratzen, dena egiten dut bertan; eta jende asko dago nire egoera berdinean. Askok gustatzen zaizkit Luiaondoko Jaiak, oso herri-zalea naiz. Bihotz erdia dut Amurrión, eta beste erdia hemen.

Zergatik dira bereziak Luiaondoko Jaiak?

Oso ondo pasatzen duzulako, oso giro ona baitago. Ez gara asko, eta gure artean gehiago erlazionatze-ra bultzatzen gaitu horrek. Hori da niri gustatzen zaidana.

Eta San Lorentzo eta Santo Domingoko festek?

Santo Domingokoa da gehien gustatzen zaidana, jende asko joaten da. Bero handia egin ohi du, baina oso giro ona dago. San Lorentzokoa ere oso ondo dago, eguraldiak laguntzen badu.

Zer asmo duzu jaietara begira?

Ekintza guztietan topera egotea, baina ea gorputzak erantzun ahal duen!

08.10 OSTEGUNA SAN LORENTZO

11:00 // **Tortilla eta pintxo lehiaketa**

12:30 // Meza San Lorentzoren omenez

13:00 // **Umeentzako tailerrak**



13:30 // Tortilla eta pintxoaren aurkezpena

14:30 // **Herri Bazkaria**
Baselizako zelaian



16:30 // **Tute Txapelketa**

17:00 // **Umeentzako ur-txirrista**

20:00 // **Kontzertua:** HDH taldea

21:30 // **Txintxorta jana** denentzat

22:00 // **Dantzaldia** Ganeko taldearekin



Jaietan ere, zuekin!

POLIGONO ARANTZAR, Nº 2 -01400
LAUDIO-LLODIO (Álava)

www.bebidasserrano.com
Tel. 94-672 97 90
info@bebidasserrano.com

ANTOLATZAILEA

“Herria festaren bidez batzea bilatzen dugu jaiekin”



MENAGARAI ETA BEOTEGIKO FESTEN ANTOLATZAILEETAKO BAT DA **MARI CARMEN CAMPO URKIJO** (MENAGARAI, 1949). SAN MIGELGO JAIEN INGURUAN MINTZATU DA.

Duela lauzpabost urte ekin zenioten berriz Menagarai eta Beotegiko Jaiak ospatzeari. Zer moduz doa ospakizunen berreskurapen prozesua?

Zer edo zer lortzen ari gara. Geroz eta jende gehiago bertaratzen da plazaratzen dugun programari esker, hein batean.

Areto dantzak daude, bolo jaurtiketak... Ekintza guztiekin bagoaz apurka-apurka jaiak berreskuratzen. Herrian gazterik ez dagoela ikusita, erromeria formatuko festa zen berreskuratu nahi genuena.

Herriko jendeari zuzendutako festak egiten dituzue, beraz.

Funtsean hori da asmoa, bai. Aspaldian egiten ziren ospakizunak ekarri nahi ditugu gogora.

Festaren bidez herritarren arteko harremanak sustatzea dugu helburu. Ez gaude oso batuta, nahiko herri problematikoa da haxe.

San Pedro Jaietan -uztailean ospatzen dira- herri bazkaria egiten dugu gure arteko erlazioak mantentzeko, adibidez.

Zergatik utzi zitzaion jaiak antolatzeari?

Geroz eta gazte gutxiago zeudelako herrian, eta pixkanaka ekintzak egiteari utzi zitzaiolako. Duela 20 urte inguru kalkulatzeko hasi zirela galtzen.

Herriko jendearen adinean dago arazoa: pertsona oso nagusiak gara, esango nuke % 80 garelako 60 urtetik gorakoak.

Etorkizunari begira zein da zuen asmoa?

Jaiak hobetzea gustatuko litzaidake niri, mota askotako ekintzak antolatzea; baina horretarako aurrekontu handiagoa beharko genuke. 3.000 euro baliatzen ditugu San Pedro eta San Miguel Jaiak antolatzeko, eta segituan agortzen dira.

Bestelako mezurik gehitzea gustatuko litzazuke?

Herriko jendea festen antolakuntzan gehiago inplikatzeko ere gustatuko litzaidake, gazte zein nagusiak.

09.26 ASTEARTEA

20:30 // Kanpai jotzea eta **suziri jaurtiketa**

21:00 // **Txorizo** dastaketa eta **txokolatada** herrikoia



09.27 ASTEAZKENA

12:00 // Meza

13:00 // **Luntxa eta zozketa** herrikoia

09.29 OSTIRALA

SAN MIGEL

12:00 // Meza

13:00 // **Luntxa**



09.30 LARUNBATA

12:00-13:00 eta 18:00-20:00 // **Bolo txapelketak**

19:00 // **Aiara Dantza Taldearen** emanaldia

20:30 // **Parrillada**

21:00 // Berbena: **DJ Zabal**

22:00 // Areto dantzak

22:30 // **Zozketa eta txokolatada**



Aiarako beste herriak

LUXOKO JAIK 2017

08.15 ASTEARTEA

13:00 // **Meza**

Jarraian **luntxa** egongo da bertaratzen diren pertsona guztientzat.

KOBATA-SAN BITORES 2017

09.02 LARUNBATA

12:00 // Meza Santua, **"Eskutxiko ahotsak"** abesbatzaren emanaldiarekin

13:00 // **Artzain-txakurren** erakustaldia

14:00 // Gizonezko artzain bati edo emakumezko artzainei **omenaldia**

15:00 // **Herri Bazkaria** "Rakapla" elkartearen laguntzaz

16:30 // **Igel-toka** txapelketa heldu zein umeentzat

18:30 // **Soka-tira**: artzainak gainontzekoen kontra Umeentzako soka-tira **Txapela jaurtiketa** heldu zein umeentzat **Dantzaldia** Iñaki Otegiarekin. Txokolatada eta jai bukaera

SOXOKO JAIK 2017

08.30 ASTEAZKENA

9:00 // Kanpai-errepikapena eta suziri jaurtiketa

9:30 // **Soxoko III. Mendi Martxa** -izen ematea doakoa-

13:00 // **Meza santua** eta gaztelu puzgarriak

13:30 // **Triki-poteoa**

18:00 // **Conquisoxo**

19:00 // **Mus Txapelketa**

22:30 // Dantzaldia **Lisker** taldearekin

08.31 OSTEGUNA

13:00 // Meza Santua eta **gaztelu puzgarriak**

13:30 // **Dantza** emanaldia eta **igel-toka** txapelketa

18:00 // **Umeentzako jolasak**

19:00 // **Tute txapelketa**

21:00 // Herri **parrillada**

22:30 // **DJ Kike Mixekin** dantzaldia

00:00 // **Mozorroak eta bingoa**

00:30 // Dantzialdiaren jarraipena eta **txokolatada herrikoia** goizaldean

OPELLORAKO JAIK 2017

09.29 LARUNBATA

13:00 // **Meza** eta ondoren: **Luntxa, trititilariak eta puzgarriak**

ETXAURREN JAIETAN 2017

09.08 OSTIRALA

18:30 // **Bederatziurrena eta zozketa**

09.09 LARUNBATA

18:30 // **Bederatziurrena**

19:30 // **Erromeria** Izalderekin

09.10 IGANDEA

11:00 // **Trikitilariak**

12:00 // **Meza eta prozesioa**

13:00 // **Meza**

13:00 // **Dantza** erakustaldia

14:30 // **Bazkari herrikoia**

16:00 // **Keramika** tailerra

16:30 // **Falkoneria** erakusketa

16:30 // **Igel-toka eta briska** txapelketak. Jarraian **errosarioa eta txahalaren zozketa**



Zure bidaien bilatzaile izan nahi dugu, familiakoekin, bikotearekin, lagunekin edota bakarrik zain duzun munduko txoko horretara hurbiltzeko! Kontaiguzu zure idea eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!


info@wegoaz.com
608 182 172
www.wegoaz.com












OKONDOKO JAIK

SAN ROMAN ETA SAN BARTOLOME

[ABUZTUAK 05/25]

*Ireki ateak
poztasunari!*



OKONDO
UDALA



Sergio Tato

OKONDOKO ALKATEA

Laster iritsiko dira San Bartolome Jaik, gure udal-erriarentzat hain garrantzitsuak direnak, eta horiei esker, ondo pasatzeko aukera izango dugu lagunekin eta familiarekin.

Askotan pentsatzen dugu jaietan denak baliu duela, baina errespeturik gabe jokutzen denean hasten dira arazoak: inguru guztia zikintzea, eraso sexistak... Jaik pertsona guztiak errespetatuz gozatu behar dira, ingurugiroa zainduz eta jaietako ekitaldietan parte hartuz.

Aurten, denentzako ekitaldiz bete-beteta datoz festak eta, horretarako, jai-batzordeari berdintasunerako eta euskararen normalizatorako irizpideak baliatzeko proposatu zaio.

Espero dugu eginiko lana zuen gustukoa izatea eta jaiak bizikidetzaz eta harmoniaz gozatzea.

Jai zoriontsuak izan ditazuela!

Okondo SAN ROMAN ETA SAN BARTOLOME JAIK

SAN ROMAN

08.05 LARUNBATA

18:00-20:00 // **Bola txapelketa**
-saikapena-

20:15 // **Mus txapelketa**
Ventillan

08.06 IGANDEA

11:00-13:00 // **Bola-txapelketa**
-saikapena-

08.08 ASTEARTEA

17:30 // **Haurrentzako jaia**

19:00-20:00 // **Bola jaurtiketa**
-20 lehenak-

20:30 // Bola txapelketako **sari banaketa**

21:00 // Odolki-jana, **"Floren y sus muchachos"** taldeak girotuta

22:30 // **"La Ribera canta"**
taldearen emanaldia



23:00 // **Tute txapelketa**
Disko-jaia

08.09 ASTEAZKENA

12:00 // San Romanen omenezko meza

12:30 // **Pintxoan dastatzea**
Okondogoiaren eskolan

13:00 // **Pintxoak eta igel-toka**
txapelketa Ventillan



17:30 // **Briska txapelketa**

18:30 // Haurrentzako parkea

20:00 // **Makila jaurtiketa**



Paella Txapelketa izango da aurtuen errepikatuko den ekintzetako bat / AiaraIdeia.eus

OHIKO EKINTZAK EKIMEN BERRIEKIN UZTARTUKO DITU AURTENGO JAI EGITARAUAK

Udala arduratu da aurtengo San Roman eta San Bartolome Jaiei egitarauak osatzeaz. Ohiko egitura mantenduko dute bi festek: abuztuaren 5etik 9ra ospatuko dira San Romangoak eta 23tik 26ra, aldiz, San Bartolomekoak. Lau eta lau. Hau da, zortzi egun guztira monotonía albo batera utzi eta herria festa giroz betetzeko.

Ez dira faltako jada herriaren tradizioaren parte bilakatu diren ekintzak: paella eta mozorro lehiaketak, bola-jokoa, makila jaurtiketa, txu txu trena edota sagardotegi formatuko afaria, besteak beste. Baina egongo dira baita hainbat ekintza berri, Araiako Umore Jaialdiaren antzerki emanaldia kasu.

Musika eskaintza

Inguruko herriekin alderatuta, esan daiteke berezia dela Okondoko Jailetako musika eskaintza. Egunez eta familiartean gozatzen kontzertuak dira nagusi. "Floren y sus muchachos" eta "La Ribera Canta" taldeak arduratuko dira San Roman Jaia alaitzeaz, abuz-

tuaren 9ko gauean egongo den disko-festarekin batera.

San Bartolometan, aldiz, hiru talde igoko dira oholtzara: Alai berbena -abuztuaren 23an-, Xai-bor -24an- eta Party Man -25ean-.

Berdintasunaren alde

Udalak jakinarazi du hainbat ekimen egingo dutela jailetan "berdintasuna sustatu" eta "eraso sexistak ekiditeko". "Parte hartze parekidea" edota "rol eta estereotipoen aldaketa" sustatzeko irizpideak proposatu dituzte horretarako.

Jai programa izango da horren isla: hizkuntza ez-sexista eta irudi inklusiboak izango ditu. Hortaz gain, musika ez-sexista banatu dute herriko tabernetatik. Eskumuturreko eta amantal moreak banatuko dituzte, azken hauek Tortilla Txapelketan.

Irailaren 24an morez jantziko da jai egitaraua: 11:30ean "jai parekideen aldeko kalejira eta mokadua" egingo dira eta Emakumeen Bolo Txapelketa, aldiz, 18:00etan.



22:00 // **Herri afaria**

00:00 // **Disko-festa**



SAN BARTOLOME
08.23 ASTEAZKENA

11:00 // **Paella txapelketa**



13:00 // **Jaien pregoia eta txupinazoa**



14:00 // **Bazkari herrikoia**
(Paella)

17:00 // **Briska txapelketa**



18:00-20:00 // **Bolo txapelketa**

19:00 // **Landa-kirola**

21:30 // **Sagardotegia**
Odoloste eta txistorra jana

23:30 // **Berbena**
Alai taldearekin

PREGOILARIA

“Ilusioz hartuko dut pregoilari ardura, gogotsu hartuko dut parte jaietan”



GERAXANE USSIA BETOLAZAK (LAUDIO, 1986) 15 URTE DARAMATZA ATLETISMOAN. OKONDON BIZI DA DUELA 3 URTETIK. AURTENGO SAN BARTOLOME JAIETAKO PREGOILARIA IZANGO DA.

Okondoko San Bartolome Jaie-tako pregoilaria izango zara. Pozik?

Ez nuen espero hautatua izatea. Pozik hartu dut albistea, ilusioz. Sergio Tatok -Okondoko alkateak-deitu ninduen, emakumea eta kirolaria nintzen pregoilari izatea proposatu nahi zidatela esanez, eta animatu egin nintzen.

Egia esan, ez naiz inoiz egon Okondoko Jaietan, baina aurten gogotsu parte hartuko dut egiten diren ekintzetan.

Pregoia zer nolakoa izango den pentsatu al duzu dagoeneko?

Ez, ez dut oraindik pentsatu. Egi-

tarauari begiratua emango diot lehenbizi, festen nondik norakoen berri izateko, eta noiz edota nola hitz egin behar dudana jakiteko.

Okondon bizi zara, baina kanpora joan behar izaten duzu entrenatzera. Nolakoa da zure egunerokotasuna?

Okondon bizi naiz, Laudion lan egiten dut, eta Durangon entrenatzen dut arratsaldean, astean sei egunez.

Zaila izan behar da hori dena uz-tartzea!

Momentuz ondo daramat. Autoa-reen ibili behar izaten naiz egune-

Okondo SAN ROMAN ETA SAN BARTOLOME JAIK

roalde batetik bestera, baina guztia egiteko denbora daukat.

Denboraldia amaitu berri duzu. Zer moduzkoa izan da?

Espainiako Txapelketa izan zen denboraldiko azken lasterketa, Barzelonan egin zen. Irailean hasiko naiz berriz entrenamenduekin.

Ikasturte hau zaila izan da niretzat. Lesio asko izan ditut eta ezin izan naiz ehuneko ehunean egon. Hala ere, lortu dut finalera igarotzea. Finalean ekaitz elektrikoa egon zen, tximista batek foku bat jo eta ilunpean utzi gintuen. Hoztu egin ginen, geldirik geundelako eta ez genekielako korrika egin ahalko genuen edo ez. Argia itzuli zenerako txipa aldatuta genuen. Seigarren postua lortu nuen, baina pozik ge-

“Oso toki lasaia da Okondo, zaratarik gabekoa. Oso harreman ona daukat auzokideekin”

ratu nintzen emaitzarekin, hilabete bat lehenago ez bainuen uste lehia-tu ahal izango nuenik ere, iskiotibiala apurtu bainuen.

Nola eragin dizute izandako le-sioek?

Mina dut korrika egiterakoan, baina lasterka aritu naiteke be-hintzat, eta pozik nago.

Irailean hasiko zara berriz en-trenatzen. Zeintzuk izango dira

zure erronkak ikasturte berriari begira?

Lesioak ez izatea da nire helbu-ru nagusia. Entrenamendu hobeak egitea espero dut, aurtun gorpuz-keko atal asko izan baitituz gaiz-ki. Lesioak babestuko ditut, atse- dena hartuta. Espainiako Txapel- ketetan bigarren geratzea da nire helburua, edo hirugarrena beste- la. Europako Txapelketetan errele- boka aritzea ere espero dut.

FC Barcelonako atletismo tal- dean zaude. Nolakoa da bertan egotea?

Nire prestaketa taldea Durangon dago. 40 kide gara, baina ez gara tal- de berekoak. Norberak garatzen du harremana bere klubarekin. Kirol indibiduala denez, bakoitzak bere kabuz aukeratu dezake zein txapel- ketetan lehiatu.

Emakume kirolaria izateak zer nolako eragina izan du zure ibil- bidean?

Gaur egun garrantzi gehiago ematen digute emakume kirola- rioi. Atletismoa kirol gutxitua da, baina Laudion eta Aiaraldean aitor- tza ugari jaso dut. Aurreko urtean oso denboraldi ona izan nuen, eta horrek aukera eman zidan egunka- rietan eta hainbat komunikabide- tan agertzeko. Okondon ere ia herri guztiak ezagutzen nau.

Hiru urte daramatzazu Okon- don bizitzen. Zer moduz?

Primeran. Oso toki lasaia da, za- ratarik gabekoa. Oso harreman ona dut auzokideekin.

Entrenatzeko balio du herriak?

Bai, errodajeak egitera irteten naiz.

Gainera, igerilekuetatik gora eta behera ibiltzeko baditugu hainbat kilometro, korrika egiteko ondo daudenak.

08.24 OSTEGUNA

11:00-13:00 // **Bolo txapelketa**

11:30 // **Jai parekideen aldeko**
kalejira eta mokadua

Txu-txu tren, egun osoan



12:30 // **Meza**

17:00 // **Mus txapelketa**

18:00 // **Emakumeentzako**
bolo txapelketa

“Araiko umore jaialdiko”
antzerkia

20:30 // **Dantza plaza** Patxi
eta konpainiarekin

21:30 // **Arkume errea**
burruntzi erara

23:30 // **DJ Xaibor**

08.25 OSTIRALA

11:30 // **Umeentzako jolasak**



HERRITARREI ZIRIKA

ZEIN DA OKONDOKO JAIEN UNERIK BEREZIENA ZURE USTEZ?



AINHOA ULIBARRI
ERIZAINA

“Batetik, mozerro-lehiaketa, herri guztia mugiarazi eta jendetza erakartzen baitu. Eta bestetik, paella eta patata tortilla lehiaketa, herritarrek sukaldean duten abilezia erakustea ahalbidetzen baitu”



ARATZ GARMENDIA
MMA BORROKALARIA

“Oso gustuko dut Okondoko Jaietan egun osoan zehar herriko plazan eta txosnetan bizi daitkeen giroa, baita herriko tabernak jendez gainezka ikustea ere. Abereen erakustaldiak dira gehien atsegin ditudan ekintzak”



ELENA RIBADO
ABESLARIA

“Musika, Nafarroako jotak, txahal errea, berbenak eta bazkari herrikoiak gustatzen zaizkit San Bartolome Jaietatik. Pilota partiduak ere gogoko ditut, ea frontoia ordurako prest dagoen”



INMA ROIZ
IDAZLEA

“San Bartolomeko Jaiek gastronomi lehiaketen zapore ona ekartzen didate gogora, aspaldiko oroitzapen onekin batera. Hori da agian jende gehien biltzen duena, mozerro lehiaketarekin batera”



12:00 // **Tortilla txapelketa**



12:30 // Meza hildakoen omenez

17:00 // **Tute txapelketa Plater tiroketa**

19:30 // **Party Manen** emanaldia

22:00 // **Mozorro lehiaketa**



23:00 // **Berbena:** Erritmo taldea

08.26 **LARUNBATA**

12:30 // Jubilatuentzako meza eta **Okondoko edadetuenari erramu ematea**

14:00 // **Aiton-amonen omenezko bazkaria**

16:30 // **Dantzaldia** eta jaien amaiera

BOKATAK
KAZOLATXOAK
PLATER KONBINATUAK
TXIBIERROAK IGANDE ETA JAIEGUNETAN



Irabien 22 behea, Okondo
945 89 85 32

ARRANKUDIAGAKO JAIAK

ANDRAMARIAK [ABUZTUAK 05/16]

*Bizi jaiak
alkarren arteko
errespetuan!*



Itziar
Duoandikoetxea
**ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO
ALKATEA**

A te joka daukaguz
gure herriko jaiak,
Andramariak.

Aurten ere, Jai
Batzordeak, batzar zabaletan,
jai egunak izendatu dauz. Egin
dauzen aldaketak ona diren ala
ez denborak esango deusku.

Herri txikietako jaiak oraindik,
badaukie euren esangura. El-
kartasunerako bultzada haundi
bat direla esango nuke.

Aurtengo jaietan ere, bultzatu
dagiguzan elkartasuna, berdinta-
suna, errespetua... Baita ere, izan
dagiguzan gogoan garai latze-
tan bizi diren herriak eta pertso-
nak (espetxean dagozanak, ihes-
lariak, errefuxiatuak, lan barik da-
gozanak...).

Jai zoriuntsuak, euskal giroan
eta umore onean igaro dagigu-
zan!

Bihotz bihotzez, be-
sarkada bana eta GORA
ANDRAMARIAK!



ARRANKUDIAGA
ZOLLO UDALA

08.12 LARUNBATA

UMEEN EGUNA

11:00 // **Kamiseta** banaketa

11:30 // **Bolanderak** eta umeen kalejira

12:00 // **Umeentzat jolas parkea**, Elexalden

14:30 // **Umeen bazkaria** Gizarte Etxean. Izena emateko zerrenda jarriko da Agirre, Elexondo eta Batzoki tabernetan zein Gizarte Etxean. Izena emateko azken eguna: abuztuak 9)

17:00 // **Apar festa** umeentzat, Garondon

18:00 // **Umeen bolo tirada**

18:45 // **Txupinazoa** (Matxinkorta mendi taldea)



19:00 // **III.Nagusien bolo tirada** J.I. Larrazabalen omenez

19:00 // **DJ Xalbor**, umeentzako dantzaldia



20:00 // **Frontenis** finala

21:00 // **Kanpamentuko en ekitaldia**, frontoian

08.13 IGANDEA

KOFRADIA EGUNA

10:00 // **Diana**

11:00 // Meza nagusia

12:00 // **Txakolin** dastaketa

13:30 // Elkarretaratzea: "Euskal presoak Euskal Herrira"



PREGOILARIAK

“Martxetan parte hartu duen jendeari eskerrak emateko baliatuko dugu pregoia”



MATXINKORTA MENDI TALDEA IZANGO DA AURTENGO PREGOILARIA. DUELA URTE BAT BAINO GUTXIAGO SORTU ZEN ELKARTEA, MENDIZALETASUNA SUSTATZE ALDERA.

Pregoilariak izateko hautatu zaituztete. Nola hartu zenuten berria?

Urtero Arrankudiagako elkarte edo talde batek bota ohi du txupina eta pregoia. Ez dakigu zozketarik egin duten ala ez, baina aurtenguri tokatu zaigula dirudi. Pozik gaude, bai. Tira, horrek lan gehiago egin beharko dugula esan nahi du... [Barreak] zerbait prestatu beharko dugu!

Hasi zarete pregoia prestatzen?

Momentuz ez dugu ezer egin, baina printzipioz inprobisatu samarra izango dela dirudi. Izan ere, aurtengurteko talde txikia da gurea. Ez dugu gauza handirik esateko,

gure ekintzetan parte hartu duen jendeari eskerrak eman eta Arrankudiagako jaietaz gozatzera animatzeaz gain.

Pregoia irakurtzeaz gain, jaietan bestelako ekintzarik egiteko asmorik duzue?

Gure 2017ko egitarauan ez dugu bertako jaietara begira ezer ere ez antolatzea aurreikusi, nahikoa lan eman digu urte osoko irteerak proposatze hutsak!

Hala ere, ez dugu baztertzen hurrengo urterako ekintzaren bat antolatzea: martxa laburren bat herriko zehar, lasterketaren bat edo erakusketaren bat urtean egindako martxen argazkiekin... Nork dakin!

Uztargarriak dira mendizaletasuna eta jai giroa?

Bai eta ez. Hau da, gu ez gara mendizale profesionalak, lagun artean sortutako talde bat besterik ez gara. Beraz, gure irteeretan lekutxo bat egiten diogu, mendiaz aparte, beste kapritxo batzuei: lasaitasunean eta lana bete ostean garagardo pare bat hartzeari edo parranda txikiren batean gozatzeko aukerari. Beraz, parranda gehiegi eginez gero, nor igokoda gero biharamunean mendira?

“Garrantzi handia ematen diogu gure herriko mendiak ezagutzeari, pistak berritzeari eta postontzien berrikusketa egiteari”

Oso talde gaztea da Matxinkorta. Nola sortu zen?

Arrankudiagak betidanik izan du mendizaletasuna. Urtero mendi ibilaldiak egiten dira, eta beti jendea animatzen denez, pentsatu genuen ideia ona izan zitekeela taldea sortzea.

Nahiz eta ideia duela denbora asko sortu, parranda txiki batean berotu ginen, mendi talde baten sorreraren nondik norakoez informatu ginen, lan talde polit bat sortu genuen, eta proiektu hau abiatzea erabaki.

Zer nolako ibilbidea egin duzue orain arte? Pozik zaudete lortutako emaitzekin?

Orain arte hainbat txango antolatu ditugu, hainbat lekuetara, hilean bat: Beriainera, Panticosara, Gorbeia... Gure helburu nagusia Euskal Herriko eta inguruko mendiak ezagutzea da, baina aparteko garrantzia eman diogu Arrankudiaga inguruko mendiak ezagutzeari, pistak berreskuratzeari, postontzien berrikusketa egiteari, herriko historia ikertzeari...

Momentuz nahiko pozik gaude egindako lanarekin, lehen urtean ia 100 bazkide izatea ez genuen inondik inora espero; eta nahiz eta ekin-tza guztietan jende askok parte hartu ez, talde polit bat sortu dugula uste dugu.

Udari begira zer egitasmo dituzue buruan?

Udari begira, San Inazio egunean Gorbeia igoko gara Ibarretatik (Orozko), eta irailean Arrankudiagako XVI. Mendi Martxa antolatuko dugu. Abuztuan, aldiz, me-rezitako oporrak hartuko ditugu, urtean egingo ditugun ekintzak pentsatzeko denbora edukitzeko.

Eta datorren ikasturteari begira?

Uste dugu hobetzeko hainbat gauza dauzkagula hurrengo denboraldiari begira, hau lehen urtea izan delako. Bazkide gehiago lortu nahi ditugu -gaur egun 100 inguru gara-, leku ezberdinetara joateko asmoa daukagu: Picos de Europa, Monte Perdido... Eskalada eta orientazio ikastaroak antolatu nahi ditugu baita ere.

Hemendik jendea animatu nahi gogutuz mendiak errespetu ezagutza, ondo pasatzera eta kirola egitera. Ondo pasa Andra Marietan, festetan parte hartu eta gora Matxinkorta Mendi Taldea!



14:00 // Umeen kofradia bazkaria

14:30 // Kofradia bazkaria eliza atarian. Txartelak Agirre eta Elexondo tabernetan, Batzokian, Ekilore dendan eta Gizarte Etxean jarriko dira salgai



16:30 // Kantaldia Jose Mendizabalekin

17:00 // Mus txapelketa

18:30 // Jazz & fusion musik show Molto vivace taldearekin



08.14 ASTELEHENA BEZPERA EGUNA

18:00 // XXX. Marmitako Lehiaketa. Izen-ematea: 18:00etatik 18:30era



19:30 // XXI. Tortilla Txapelketa (0 eta 18 urte bitartekoentzat) Izen-ematea: 18:00etatik 18:30era

20:00 // Kalejira

20:00 // Tortilla eta marmitako lapikoen aurkezpena





KOP taldea, artxibo irudi batean / Saioa Gauilunak

KOP, MATARRASA, ERRAMUN MARTIKORENA ETA GARILAK 26k GIROTUKO DITUZTE JAIK

Kop, Matarrasa, Erramun Martikorena eta Garilak 26 musika taldeek girotuko dituzte Arrankudiagako Andra Mari Jaiak. Fes-tetan egongo diren gainontze-ko ekintzak ohikoan egiten direnak izango dira. “Nobedade gutxi daude aurtengo egitarauan”, azaldu du Aitor Lexartza Jai Batzordeko kideak.

Andra Mari Egunean -abuztuaren 15ean- egingo da berrikuntza bakaretako bat: umeen eskupilota partidak jasoko ditu frontoiak goizean, “eguna indartu eta herriko jendea erakartzeko”.

Kofradia Eguneko arratsaldean proposatu dute bigarren berrikuntza: “Musika ikuskizuna ekarriko dugu antzezlanaren orde, azken honek jada ez duelako herriarregan garai batean zuen interesa pizten”, aipatu du Lexartzak.

Jaien datak egonkortzea

Datei dagokionez, iaz egin zuten moldaketa, “jaiak bateratzeko apustua” hain zuzen, antolakuntza errazteko. “Funtzionatzen duela ikusten bada mantendu egingo da datozen urteetan”, azaldu du Jai Batzordeko partaideak.



22:00 // **Afaria**



22:30 // **DJ Mariskal**
Platano dantza

08.15 ASTEARTEA
ANDRA MARI
EGUNA

10:00 // **Diana**


10:30 // **Kalejira**

11:00 // Meza

12:00 // **Pilota partidak**



19:30 // **Kontzertua: Erramun Martikorena**



22:00 // **Zinema umeentzat**



Ondo pasa jaietan!

Hemen aurkituko duzu mugaren bat duten pertsonen egunerokoan behar duten guztia



Zubiaur kalea, 5 (atzeko aldean) LAUDIO 94 657 44 48 www.mingorriayudastecnicas.com

08.16 ASTEAZKENA

BERAKATZ EGUNA

14:30 // **Gazte bazkaria**

17:00 // **Futbol partida** (Goikoak behekoen aurka)

18:30 // **Gazte kontzertua**

19:00 // **Pilota partidak**

21:00 // **Odoloste jana**
herriko tabernetan

21:30 // Kontzertuak: **Matarrasa, Kop eta Garilak 26**



05:00 // **Berakatz zopa** eta
jaien amaiera



www.aiaraldea.eus



Jaiak 70-90eko hamarkadetan

Arrankudiagako Andra Mari Jaietako argazki zaharren bilduma paregabea plazaratu du Txomin Egiluz historiazaleak. 1979ko kofradia bazkaria eta kalejirak bildu ditu iruditan, baita dantza erakustaldiak edota 1948ko jai programa ere.



JAI BATZORDEA

“Laburra baina bizia da jaietako asteburua, bada lana nahi duenarentzat!”



ATXETAKO JAI BATZORDEKO KIDEAK DIRA **PAKI GARCIA SANCHEZ** eta **NEKANE ALONSO OKERANZA**. PREST DUTE DAGOENEO AURTENGO JAIEN EGITARAUA.

Prest duzue dagoeneko Atxetako Jaien egitaraua. Zer topatuko du bertaratzen denak?

Ekaina amaieran egin genuen bileran Gizarte Etxean, eta bertan komentatutako ideiekin osatu dugu egitaraua. Azken orduko aldaketak egon daitezke hala ere, oraindik denbora asko falta baita.

Betiko ekintzez gozatzeko parada izango dute etortzen diren pertsonak: txapelketa gastronomikoa, euskal kantak, igel-toka txapelketa, txokolatea, txistorrada...

Aurtengo nobedadea larunbat gaueko kontzertu-berbena izango da, Al Limite taldeak eskainiko duena. Igande goizean, aldiz, Hutsa bikote akustikoa izango dugu. Ez da faltako, noski, larunbat arratsaldeko dantza-plaza, nahikoa arrakasta izan baitu azkenaldian.

Umeengan pentsatutako ekintzek pisu nabaria dute egitarauan.

Bai, umeak oso presente daude beti gure jaietan. “Gertuko” auzoa gara eta garrantzi handia ematen diogu publiko guztientzako ekintzei zein familian gozatu ahal iza-

teari. Puzgarriak, tailerrak, magia, buruhandiak... haurrek asko gozatzten dute Atxetan!

Tradizio handikoa da txapelketa gastronomikoa. Nola sortu zen?

Urte asko daramatzagu lehia-keta gastronomikoa egiten, eta ez da beti marmitako eta tortillarena izan, bakailaorena ere izan da.

Duela zortzi urte jarri genion zendutako Jesus Gorostizagaren izena ekimenari, urte asko igaro baitzituen berak igandeko herri bazkaria prestatzen.

Nola antolatzen zarete jaiak aurrrera ateratzeko? Handia al da auzokideen inplikazioa?

Jaien asteburua laburra baina bizia da. Bakoitzak ahal eta nahi duen horretan laguntzen du. Auzokide guztiok ditugu ateak irekita: barra txandak, txokolatea egitea, mahaiak prestatzea... badago lana lagundu nahi duen horrentzat!

Zuen zain gaude. Auzo txikia gara baina oso jai politak egiten ditugu, adin, herri eta gustu guztientzat.

09.16 LARUNBATA

Baserriko produktuen salmenta goizean

12:00 // **Txupina eta kalejira**

12:00 // **Tailerrak eta puzgarriak**

12:00 // **Nafarroa Kanta Taldea**

12:30 // **Txapelketa gastronomikoa**
J. Gorostizagaren VIII. Memoriala



14:30 // **Sari banaketa eta bazkaria**

16:00 // **Umeentzako puzgarriak, makillajea eta globoflexia**

17:00 // **Buruhandiak**

18:30 // **Magia: Oliver & Eva**

19:30 // **Txokola jana** herrikoia

19:45 // **Kulunkanekin dantza plaza**

21:30 // **Txistorrada** herrikoia

21:30 // **El límiteren kontzertua**

09.17 IGANDEA

12:00 // **Diana eta kalejira**



12:00 // **Bitsaren Jaiak**

12:30 // **Meza**

13:00 // **Hutsa** bikote akustikoa

14:30 // **Bazkaria** eta bingoa

18:00 // **Tolin Mariatxia**

19:15 // **XXVIII. Igel Txapelketa**

20:30 // **Sari banaketa**

21:00 // **Azken bolandera**

AMURRIOKO JAIK

SANROKEAK [ABUZTUAK 12/17]

*Zu zeu zara jaia!
Amurrioko Jaietan ere...
euskaraz bizi nahi dut!*



Josune Irabien
AMURRIOKO ALKATEA

Herritar hori, Amurrioko jaiak gain-gaietan dira berriz ere. Dena prestatzen ari da azkenengo egunotan: Iguarrako, herriko taldeak, koadrilak, karrozak, musika jotzeko guneak, era askotako jarduera berriak, musika taldeak, kirol-probak, herriko dekorazioa... hainbat eta hainbat. Halere, garrantzitsuena zeu zara, herritarra. Jaietan zeu zara protagonista. Jaiak berotzen, sentitzen, prestatzen...

Eta zurekin batera, Amurrioko aurtengo "Urrezko Guk" sariduna ere izango da protagonista: Zarraobe Saskibaloit-Taldea. Aurtengo pregoilariak dira, umeei eta gazteekin egiten duten lan ederrari esker.

Beraiekin batera amurriokoar guztiak izango dira. Hortaz, gozatze-ko asmoa zabaltu nahi dugu barra-barra. Amurrioko bazter guztietan gozatzeko aukera aparta izango duzu. Gustuen aniztasuna da nagusi; zeuk unea, jarduera eta lekua aukeratu baino ez duzu egin behar.

Horretarako dira jaiak, gozatze-ko eta dastatzeko... emeki-emeki baina atsedenik gabe. Lagunen artean edo familiarekin jai parekideak eta alaiak izan daitezten. Animatuko al zara barruan duzun guztia plaza-ratzen? Baietz ausartu!

08.05 LARUNBATA

18:00 // **Santuaren jaitsiera**
San Roke basilikatik Andra
Mari elizara (Vera Cruz
Kofradia)

08.11 OSTIRALA

Lucas Reyko **barraketan prezio berezia** (1 euro /bidaia)

9:30-13:30 // **Odola emateko autobusa** Larrinagako oinezkoen gunean

19:30 // **Txupinazo herrikoia** parkean (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

20:00 // **Bertso poteoa: Izar Mendiguren eta Iñaki Viñaspre** (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

22:00 // **Afari Herrikoia** parkean (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

23:30 // **DJ Bull** Gazte Karpan (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

08.12 LARUNBATA

TXUPINAZOA

11:30 // "Amurrio hiribildua" **pilota txapelketako finalerdiak**, udal pilotalekuan

12:00 // **Paella txapelketa** parkean (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

12:30 // **Koadrilen aurkezpena** Juan Urrutia plazan

14:30 // **Paella bazkaria**



PREGOILARIAK

“Saskibaloia bezalakoak dira jaiak: talde-lana dute oinarri”



ZARAOBE SASKIBALOI TALDEKO KIDEA DA **IMANOL ARBERAS MENDIBIL** (AMURRIO, 1968). AMURRIOKO JAIETAKO PREGOILARIA IZANGO DA KLUBA.

Prestatu duzue dagoeneko pregoia?

Horretan ari gara. Oraindik ez dugu asko hitz egin pregoiari buruz, baina guretzako jaiak saskibaloia bezalakoak dira: talde-lana. Norbanako gisa posiblea da egunotan gozatzea, baina denon lana da beharrezkoa: koadrilena...

Uste dugu klubaren presidentek botako duela pregoia. Gainontzekoak berarekin egongo gara, laguntzen. Hala ere, abuztua hilabete zaila da, jende asko oporretan dagoelako. Klub gisa gauza gutxi egin ditzakegu hilabete horretan. Hori bai, ilusioz beterik egingo dugu pregoia. Izugarria izan da guretzat lor-

ALBIZABAL
HOSPEDAJE RURAL

AIARA ETORBIDEA, 10 AMURRIO
945 06 88 90

MUSIKA ZUZENEAN!

ASTEBURUTAN: BOKATAK ETA ERRAZIOAK

Amurrioko San Roke Jaia

ABUZTUAK 12-17

tzea Urrezko Guk saria, bultzada da.

Zertan eragin dizue aitortza jasotzeak?

Jende gehiagorengana iristeko. Ume askok eman dute izena datorren ikasturterako. Horrek arazoak dakartza hein batean, entrenatzaile falta dugulako. Izan ere, gutxi gara klubean. Badago jende gaztea, baina oso zaila da entrenatzaileak topatzea, ez baitugu ordaintzen. Hurrengo urterako dena dugu lotuta, baina jendea behar dugu.

“Klubean erdia baino gehiago dira emakumeak, eta harro egoteko zerbait da hori guretzako”

30 urte baino gehiagoko ibilbidea egina duzue. Urduñako Bedarbidetako klubaren ostean, zuena da eskualdeko talderik beteranoena.

Talde bakar batekin hasi ginen.

Marcos Marotok -klubeko lehenbiziko lehendakariak- bere semearengan pentsatuta osatu zuen taldea, Bedarbidetik jokatzen zuelako. Nesken taldea sortu zen gero, eta urteen poderioz handituz joan da egitasmoa. Gaur egun 200 kide gaude Zaratzen.

Ume txikiak daude batez ere, eta neska asko. Erdia baino gehiago dira emakumezkoak, eta harro egoteko zerbait da hori guretzako, nahiko zaila delako eskualdean emakumezkoentzako talde-kirola topatzea.

Lanketa berezirik egin duzue horretarako?

Azken urteetan asko funtzionatu du ahoz-ahokoak. Taldeen osaketan ikusi daiteke hori: ikastetxe berrekoak izan ohi dira jokalariei guztiak. Euren lagunak klubean daudelako animatu dira asko saskibaloian aritzera.

Hori gertatu da azken urteetan. Egiten dugun lana nahiko ona dela esango nuke, tratua ona eman dion jendeari.

Zein mezu helarazi nahiko zenukete jaiei begira?

Jaiez disfrutatzeke deia luzatu nahiko genuke, eta “ezetza ezetza dela” aldarrikatu nahiko genuke baita. Sentsibiltate nahikoa dugu emakumeekiko, eta mezu hori helarazi nahiko genuke klub gisa.



16:30 // **Txapela jaurtiketa**
Iturralde kalean (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

18:15 // **Pregolarien irakurketa**
Zaraobe saskibaloia klubaren eskutik udaletxean

18:30 // **Jai-koadrilen igoera**
Urrutia jauregiko landatik Juan Urrutia plazara.

18:40 // Jaietako koadrilen **ordezkarien aurkezpena eta bandak jartzea** udaletxeko aretoan

19:00 // Herriko jaietako **txupinazoa eta Iguarrakoaren**



jaitsiera

19:00 // **Kale animazioa**
Laudioko Betijai fanfarrearekin

19:00-22:00 // **Indarkeria sexistarik gabeko gunea**
Emagin Euskal Herriko Bilgune Feministaren eskutik, Larrinaga kalean

19:30 // **“Bambalas” kale antzerkia** Bambolea konpainiarekin, frontoi kalean

22:00 // **Kosmos** orkestra





LUYANDOPTICOS



Ondo pasa jaietan!

AMURRIO: Elexondo 1
T: 945 892 422

LAUDIO: Batzabalain, 48
T: 944 042 286

URDUÑA: Barria, 7
T: 945 384 499



INSTITUTO MÉDICO VETERINARIO DE ÁLAVA



Txertoak | Kontsultak
Prebentzio-medikuntza
Kirurgiak | Ospitalizazioa
Etxez etxeko bisitak

Maskuribai poligonoa Z9 - Z11
01470 Amurrio (Araba)
Tel.: 945 028 910 - 945 393 477
Larrialdiak: 656 788 800
www.imva.es

“Jaietakoa gure kontzertu onena izatea espero dugu”



Bere lehen diskoa plazaratu du Aiaraldeko **ETENIK EZ** taldeak: “Zeruak sutan”. Amurrioko Jaietan aurkeztuko du, abuztuaren 14ko gauean, Su Ta Garrekin batera.

Nolakoa izan da diskoaren grabaketa prozesua?

Grabaketa berebiziko esperientzia izan da. Ordu asko igaro dugu estudioan sartuta garagardo botilekin batera. Oso pozik gaude lortutako emaitzarekin.

Amurrioko Jaietan aurkeztuko duzue diskoa. Zer nolako kontzertua izatea espero duzue?

Gogo asko ditugu eta gure kontzertu onena izatea espero dugu. Ohore handia da guretzat Su Ta Gar taldearen aurretik jotzea.



**Jaietan
egin gurekin
topa!**

KOADRILEN ZAPIAK ESKEGIKO DITUZTE UDALETXEKO BALKOITIK JAİETAN



Zapi bat egin dute koadrila bakoitzeko. Aiaraldea.eus

Amurrioko Udalak jakinarazi du herriko jai-koadrilen ikurrak dituzten zapiak eskegiiko dituztela jaietan udaletxeko balkoitik, “koadrilen baloreak goraipatzeko”. Hortaz gain, udalerriaren

ikurra duten 40 bandera eskuratu ditu udalak, “jaiak girotu eta kolorez betetzeko”. Hainbat eraikin publikotan jarriko dituzte, Kultur Etxean eta La Casonan, besteak beste.

TAXI



TRANSPINSA, S.L.

945 89 03 93

transpinsa@hotmail.com

AMURRIO

TXIKI BUS



Amurrioko San Roke Jaia ABUZTUAK 12-17

ANTZERKI ETA DANTZARAKO OHOLTZA BIHURTUKO DIRA AMURRIOKO KALEAK



Manneken Pis antzezlanaren irudi bat. CQP Producciones

Lau antzerki eta dantza emanaldi ikusi ahal izango dira Amurrioko Jaietan. Abuztuaren 12an “Bambalas” dantza ikuskizuna egongo da Frontoikalean, 19:30ean. “Manneken Pis” instalazio artistikoaren txanda izango da 14an. Bi emanaldi eskainiko dituzke, 20:00etan

eta 22:30ean. 16an “Itsaslapurrak” dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da, 20:00etan Juan Urrutia Plazan. Bizikleta-akrobaziak izango ditu oinarri azken emanaldiak: “Funbox Factory”. 17an izango da zita, 19:00etan Urrutia jauregiko landan.



22:00 // **Pilota partiduak** udal pilotalekuan:
Landaluze-Murga/
Bellido-Urretxu
Titin-Saratxaga /
Dorronsoro-Cecilio

22:00 // Kontzertuak
txosnagunean: **Radio
Revolucion, El Baston de la
vieja eta Ezten Giro**
(Jai Herrikoien Aldeko
Batzordeak antolatuta)

08.13 IGANDEA
HAURREN ETA ATZOKO
GAZTEEN EGUNA

10:00-15:00 // **Amurrioko
haurren txupete bilketa**
udaletxeko ate nagusian

10:30 // **Harrera familetan
dauden haurrentzat ekitaldia**
udaletxean



www.kopas.es

Bulegoa-Erakusketa:
Alda. Urkijo, 88 - 2º
48013 Bilbao - Bizkaia
Tel: 94 442 22 24
Fax: 94 439 97 69
kopas@kopas.es



www.kopas.es

Lantegia:
Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Araba
Tel: 945 39 94 05
Fax: 945 39 94 29
fabrica@kopas.es



Ideiak gauzatzen ditugu



Trofeoak, kopak, txapelak, plakak, giltzatak, pin-ak, kamisetak, zapiak, mantalak, laser-grabatuak, metakrilatoa, promozio artikulak, instituzio sariak, merchandising, grabatuak, taillaketak, bordatuak, estanzazioak



11:00 // Egun osoan zehar **plater tiroketa**, Larrabeko "Isidro Arteta" tiro zelaian

11:00-14:00 // Parkean **haur-parkea**, itsas-ludoteka, giza-futbolina, eta hainbat puzgarri

11:00 // Alkateak **hiribilduko pertsonarik helduenari makila** emango dio

11:30 // Andra Mari parrokiaren **meza Mariak abesbatzarekin**. Jarraian, udalbatzak "San Anton Armuru" egoitza bisitatuko du

12:00 // **Buruhandien kalejira**

12:30 // Plazan, **adinekoentzako janaurrekoa eta musika** Ganekekarekin (Amurrio hiribilduko familia elkartearen eskutik)

14:00 // Atzoko gazteentzako **anaitasun bazkaria** udal pilotalekuan

14:00 // **Haurrentzako bazkaria**, parkean

14:30 // **Pintxoak, momorrotxoak eta gazte bazkaria** Gazte Karpan (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

16:00 // **Dantzaldia River taldearekin** Larrinaga kaleko oinezkoen gunean

16:00 // **Kubilete txapelketa** Gazte Karpan (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

16:00-18:00 // **Jolas tradizionalak eta herri kirolen ginkana** udal parkean



EL BOLI, 30 URTE JAIETAKO ARDI LARANJA IZATEN



El Boli koadrilako kideak, karroza jaitsiera batean. **Xabi Isla**

Madril, 1988ko otsaila. Amurrioko hiru lagun parrandan. Halako batean, elkarren arteko elkarrizketa batean, euren herriko jaietarako koadrila berri bat sortzea bururatzen zaie.

Horrela sortu zen, gutxi gora behera, El Boli koadrila, Xabi Islaren arabera. Hiru lagun horietako bat zen bera, eta ondo oroitzen ditu garai haiek: "Urte horretako jaietan egin genuen lehen karroza. Kaiola erraldoi bat zen, barruan gorila bat zuena. Ibilbidearen une batzuetan gorilak kaiolatik ihes

egiten zuen, eta publikoaren artean mugitzen zen, ekitaldia parte hartzaileagoa eginez". Hori zen koadrilaren xedeetako bat: izaera apurtzailea sustatzea.

Taldearen izena eta janzkera ziren horren seinale argiena: "Izenak ez du inolako zentzurik, bururatu zitzaigun lehena jarri genuen", oroitu du Islak, "jantzi gisa, aldiz, buzo laranja hautatu genuen, gai nontzeko gazteen jantziekin kontrastea egiteko".

Jaietako ekitaldi ofizialetan ere utzi zuten El Bolikoek ekinbide

ad!grafik

Diseinu eta zerbitzu grafikoak

Diseinu grafikoa
Irudi korporatiboa
Web disenua

Errotulazioa
Dekorazioa
Textila

Merchandising
Ezkontza-gonbidapenak
Opari pertsonalizatuak

www.adigrafik.com
Tel. 945 89 08 46 | adi@adigrafik.com
Maskuribai Ind. Z-10 | 01470 AMURRIO (Araba)

Amurrioko San Roke Jaia ABUZTUAK 12-17

apurtzailea. “Jaietako dama gisa gizonezko bat jartzen saiatu ginen gure lehen urtean, baina ez ziguten utzi”.

Madrilen eginiko festa batean sortu zen koadrilaren ideia

Jaien lehen egunean bazkaria egiteko ohitura eurek abiatu zutela ere aipatu du Islak. “Lehen inork ez zuen halakorik egiten. Gauregun, ordea, oso ohitura errotua da”.

“El Boliren sorrera haize bolada freskoa izan zen koadrilen historian”, adierazi du Lander Arteagak. 90eko hamarkadan batu zen bera taldera, 2002 urtera arte egon zen. “Ezberdina zen ordura arteko koadrilen artean, ganberroagoa”, dio.

Urtemuga

Belaunaldi aldaketa ugari izan ditu El Bolik. Gaur egun, jende gaztea da nagusi taldean, baina ondo hartua dute 30 urteko ibilbidearen lekukoa. “Zerbait berezia prestatzen saiatuko gara urteurrena dela eta”, aurreratu du koadrilako kide den Arkaitz Garcia Morenok.

Aipatu duenez, talde gisa indartsu daude; kide berriak sartu baitira aurten, buzoak soinean jaietako “ardi laranja” izaten jarraitzeko prest.



16:30 // **Gotzon Landeta XII. Mus Txapelketa** Txokogorri, (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

18:00 // **“Zumba Kids”** udal parkean

18:00 // **Graffiti erakustaldia, slacklinea eta boulderra** parkean (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

19:30 // **Buruhandien kalejira**

19:30 // **Txistularien kontzertua** San Anton plazan

20:30 // **Bertso saioa: Aroa Arrizubleta, Oihana Bartra eta Alaita Martin** (Aia eskualdeko bertso eskolak antolatuta) parkean

20:30 // **Afari musikatua parkean: Sabin Guaresti eta Ilargiak** (Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

21:30-24:00 // **Berbena River taldearekin**, Larrinagako oinezkoen gunean

23:00 // **Sound Gaua** Gazte Karpan (Euskal dub etxea, Rude kanka eta Aiaraldeko Soinu sistema, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta)

23:30 // **Kontzertua Muskhum, Astarte eta The Monkey**



BIDEKO JATETXEA

Ondo pasa jaietan!

Lezama auzoa. 01470 AMURRIO (Araba) Tel.: 945 890 633
info@restaurantebideko.com // www.restaurantebideko.com

USHUAIA

Dionisio Aldama, 20
 (Geltokiaren aurrean) AMURRIO
 Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00 (ez dugu eguerdian ixten) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · PERFUMERIA · OSAGARRIAK · BEHIN BETIKO DEPILAZIOA · SAUNA · SOLARIUMA

Ile-apaindegia

- KERÁSTASE PRODUKTUAK
- ILE ERANSKINAK-PELUKAK-ILE LUZAPENAK
- ALISATZE BRASILDAR ETA JAPONIARRA
- ILE TRATAMENDUAK

Osagarriak

Lurrindegian lehen markak Edertasuna

- IRAUPEN LUZEKO ATZAZKAL ESMALTATZEA
- FOTODEPILAZIOA
- FOTOERABERRITZEA
- AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK
- ZIMURRAK, ORBANAK...
- ARGIZARI DEPILAZIOA
- MANIKURA, MAKILAJEA...

Bizargintza zerbitzu berria

Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería **DESKONTU BEREZIAK FAMILIA UGARIENTZAKO ETA HIRUKIDEKOENTZAT**

TXABOLAKOAK KOADRILA

“Zerbait aldatu behar genuela pentsatu genuen, horrela sortu zen koadrila”



TXABOLAKOAK KOADRILA SORTU BERRI DU AMURRIOKO LAGUN TALDE BATEK. AURTENGO JAIK ANIMATZEA ETA HERRIA BERPIZTEA DUTE HELBURU.

Koadrila berria sortu duzue. Nola sortu zen ideia?

Egun batean, Amurrioko jaien inguruan hitz egiten, zerbait aldatu behar zela pentsatu genuen. Kodrilako batek proposatu zuen ideia.

Lehenengo bi asteak gogorrak izan ziren. Ideia udalean proposatu genuen lehenbizi. Udala ados zegoen proposamenarekin, baina esan ziguten zaila izango zela aurtengo jaietarako koadrila egitea, estatutuak egon behar zirelako. Hala ere, gogotsu ekin genion

lanari, eta bi astetan guztia egitea lortu dugu.

Zein da aurtengo jaiari begira duzuen helburua?

Jaiak animatzea, zarata ateratzea eta herriko festak berpiztea. Jaietako ekintza guztietan parte hartze-ko asmoa dugu. Lehenengo egunean, adibidez, Koadrilen Bazkaria egingo dugu.

Nondik dator izena?

Koadrilako batzuk txabola bat

geneukan txikitan, guk eginikoa, zenbait abererekin. Hortik dator izena. Hiru lokalen artean osatu dugu nagusiki taldea: 55 kide gara, 13-21 urte bitartekoak. Mutilak gaude batez ere, baina baita zenbait neska ere.

Aspaldi ez dela Amurrion koadrila berririk sortzen. Zergatik izan liteke, zuen ustez?

Jendeak ez du arazoetan sartu nahi. Izan ere, zenbait erantzukizun dakartza horrelako talde bat egiteak.

BESTE KOADRILAK



**ARKAITZ GARCIA MORENO
EL BOLI**

“Ondo pasatzeko asmoa dauka-gu, zerbait berezia prestatzen saiatuko gara gure 30. urteurrena dela eta. Aurtengo izugarritzko indarrekin hartuko ditugu jaiak, koadrilan kide berriak sartu baitira”



Amurrioko San Roke Jaia

ABUZTUAK 12-17



ANA PEREZ ASTORGA
TROT ART

“Gogo handiz hartuko dugu txupinazo eguna. Dena den, geroz eta partaide gutxiago gara koadrilan eta egoera honek asko tristetzen gaitu. Aurten, berriro ere, kide gehiagoren bila arituko gara”



LOREA PEREZ ROIS
HERRIARENAK

“Jaietako esparru gehienetan gure parte hartzea bermatzeko apustua egingo dugu, barne programa prestatuta. Herriatik eta herriarentzat sortutako egitarauan jarriko ditugu indarrak”



PAULA BARCELO BALADO
EUSKOTARRAK

“Aurtengo jaietan gure asmoa ondo pasatzea izango da. Hori da Euskotarrak jai koadrilarentzat garrantzitsua. Izugarrizko indarrarekin hartuko ditugu jaiak!”



MIRIAM SALAZAR SUAREZ
DANTZA LAGUNAK

“Dantza Lagunak parrandazaleak izateagatik gara ezagunak, eta aurten ez da desberdina izango. Jende berria batu zaigu eta horrek lan egiteko eta aurrera jarraitzeko gogoak eman dizkigu”

08.14 **ASTELEHENA** KOADRILEN EGUNA

9:30 // **VIII. Marmitako Lehiaketa**, Juan Urrutia plazan

10:00 // **Baserriko produktuen erakusketa** eta lehiaketa Juan Urrutia plazan

11:00 // **Musika animazioa**

11:00-14:00 // Parkean **haur-parkea**, lego ludoteka eta gaztelu puzgarriak

11:30 // “Amurrio hiribildua” **pilota txapelketako finalak**, udal pilotalekuan

12:30 // **Haurrentzako tailerra: pintxo hotzak**, parkean

13:00 // **Trikipoteoa koadrilekin**, plazako kioskotik

13:00 // Marmitako Lehiaketako kazolen aurkezpena

13:00 // **Ziza dastaketa** (Arriola mikologia elkartearen eskutik), Juan Urrutia plazan

Alberto Acero merkatu plaza (13.postua) LAUDIO - 94 675 39 90



@anitaberria

LAUDIOKO KOADRILA HISTORIKOAK “ASPALDIKO JAIK” ALDARRIKATZEKO PREST



Iazko egin zuten lehen topaketa, San Roke jaien baitan. AiaraIdeia.eus

Indarberrituta iritsiko dira Lau-dioko koadrila historikoak aur-tengo jaietara. Iaz egin zuten eu-ren arteko lehen topaketa, eta aur-ten bide beretik jarraitzeko asmoa dute.

“Lehen urtea izan zen iazkoa, probazkoa. Kalera atera ez zen jen-de ugari egon zen; aurten anima-tzea espero dugu”, adierazi du Fa-bian Hernandez Perez ekimenaren sustatzaileetako batek.

Hori dela eta, parte hartzea han-diagoa izango dela aurreikusi dute.

Los Yumas eta Scorpio

Egitarau berezia aurkeztu dute horretarako. Abuztuaren 15ean txosna jarriko dute elizako arku-peetan, jatekoa eta edatekoa luzat-zeko. Musika emanaldia eskaini-ko dute bertan Los Yumas eta Scor-pio taldeetako kideek, 15:30ean. 16an, aldiz, antzinako koadrilen arteko bazkaria egingo dute, toki berean.

Hortaz gain, beste hainbat ka-lejira eta ekintzetan hartuko dute parte.



16:00 // **Pasaboloko IX. San Roke Txapelketa** Lamuza parkeko bolalekuan

16:00 // **Arabako IX. Bola-joko Txapelketa**, Lamuza parkeko bolatokian

17:00 // **Erraldoi eta buruhandien kalejira**

18:00 // **Dantza plaza** Txosnagunean



18:00 // Txotxongilo-antzerkia Herriko Plazan: **“Violeta”**



19:00-21:00 // **Pintxo-gargantua** Herriko Plazan

19:15 // **La Colla de Castellers de Esplugues de Llobregat** taldearen emanaldia Araba eta Batzalarri kaleen artean

20:00 // **Animazioa** Laudioko gaiteroen eskutik

20:00 // **Bolero-gaua** herriko plazan el Trio Medianoche taldearen eskutik



LAUDIOko

JAIK 2017

KONBINATUAK

TERRAZA

MUSIKA ESKAINTZA ZABALA

LAUDIO

SORGIN

TABERNA

IZOZKI

IRABIAKIAK

SMOOTHIAK

FRAPPEAK

KOKTELAK

KULTURARTEKOTASUNA

“Jaietan ere kultur-sareak osatzeko beharra dago, horretarako da txapelketa”



VIRGINIA RODRIGEZ ACUÑA

(PARAGUAY, 1966) KULTURARTEKO ZUBIAK ELKARTEKO KIDEA ETA JAIETAKO BOLEIBOL TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEETAKO BAT DA.

Nola otu zitzaizuen txapelketa egitearen ideia?

Kultura askotako jendea bizi gara Aiaraldean, eta iruditu zitzaigun jaietan ere kulturak elkar ezagutzeko sareak osatzeko beharra zegoela.

Zergatik boleibola?

Paraguayn eta Brasilen asko jokatzen dugun kirola da. Gure herrialdean ohitura handia dago.

Lamuzako kirol-zelaian elkartzen gara jolasteko, frontoiaren parean. 15-20 lagun batzera ere iritsi gara!

Abuztuaren 17an izango da txapelketa. Zer egin behar da apuntatzeko?

Egunean bertan apuntatu behar da. Iaz ere Laudion bizi diren Euskal Herriko eta beste herrialdeetako gazte ugari etorri ziren. Aldai plazan izaten da hori, abuztuaren 17an.

Zergatik da garrantzitsua era honetako dinamika gauzatzea?

Jende asko bizi gara hemen, baina ez dugu elkar ezagutzen. Horrela ekintzetan elkarrekin hartzen dugu parte.



20:00 // **Odoloste-jana**



23:30 // **Zea Mays eta Hesian** taldeen kontzertua Zumalakarregi etorbidean



00:30 // **IX. Kaltzontzilo eta kulero** lasterketa, Herriko Plazan



UNTXI ETA TORTILLA TXAPELKETAK 40 URTE BETEKO DITU AURTEN



Txapelketa Herriko Plazan egiten zen aspaldi. **Rakapla**

Sanrokeen jai tartean ere egongo da zertaz gozatu. Abuztuaren 19an egingo da Untxi eta Tortilla Txapelketa Gastronomikoa. Berezia izango da, txapelketaren 40. edizioa izango baita. 1977 urtean egin zen lehenbiziko aldiz. Rakapla koadrilako zortzi kideri otu

zitzaien ideia, Logroñoko San Mateotako Txuletilla Txapeleketan parte hartu ostean. Baina lehen saiakerak ez zuen arrakasta handirik izan: sari gehiago egon ziren parte hartzaileak baino.

Hala ere, urteek ospe eta garrantzia eman diote lehiaketari, abuz-

tuan Laudion egiten den ekintza esanguratsu eta jendetsuenetarikoa bat bilakatzeraino.

Euskara sustatzea helburu

Hain handia izan ohi da parte hartzea, ezen 2003 urtean Guinness Errekorra apurtzeko adina untxi eta tortilla aurkeztu baitziren: 350. “Baina notarioa eta telebista ez ziren bertaratu”, oroitu du Ekhiotz Bilbao antolatzaileak.

Rakapla kideak azaldu du ez dutela aurreikusi aparteko ezer prestatzea urteurrena ospatzeko: “Ohiko parte hartzea espero dugu eta *Voces Navarras* taldea etorriko da emanaldia eskaintzera”.

Hala ere, hurrengo urteetarako erronka dute buruan: euskararen presentzia handitzea, megafonia-tik hasita.

LAUDIOKO JAIK 2017

**Jai herrikoi
eta
parte-hartzaileen
alde!**

Abuztuaren 15, 16, 17, 23, 24, 25, 26 eta 27





01:00 // **Pankarta sari-banaketa** herriko plazan

2:00 // **Disko-dantza** Txosnagunean

08.27 IGANDEA

KOFRADIAREN ETA ERROKETXUREN EGUNA

11:00 // **Pintxo gargantua** Herriko Plazan



11:00 // **Diana** gaiteroekin

11:00 // **Prozesioa**, San Rokeren irudia ermitara itzultzeko

11:00 // **Hasiberrientzako entzierroa**

12:30 // **Entzierroa eta bigantxak** -16 urtez gorakoentzat-



UDALAREN ESKU GERATU DA BASERRITAR EGUNEKO AZOKA



Dozenaka ekoizle hartzen dute parte azokan. AiaraIdeia.eus

Udala arduratuko da hemendik aurrera Baserritar Eguneko azoka antolatzeaz. Hori egingo duen lehen urtea izango da, orain arte Kilkerak koadrila arduratu baita antolakuntzaz. 28 urtez egon da koadrila goizeko postu eta ekin-tzak kudeatzen. Adierazi dutenez,

ardura euren gain hartu aurretik beste koadrila bat zegoen antolatzaileran lanetan.

Azokaren nondik norakoak, baina, ez dira asko aldatuko udalaren arabera. Aurreko urteetako postu kopuru bera egotea espero da, egitasmoaren osasun onaren seinale.



IRRINTZI
euskal jantzi denda



EUSKAL JANTZIAK

BORDATU - mota guztiak

ESKUZ EGINDAKO PIEZAK

OSAGARRI TRADIZIONALAK

944 07 22 15



Irrintzi. euskal jantzi denda



Batzalarri Kalea, N°9 Llodio

ZEZENKETARIK GABEKO JAIK IZANGO DIRA AURTENGOAK, LEHENBIZIKOZ



Azken urteetan gutxituz joan da zezenketetara zihoan jende kopurua.

Historikoak izango dira aurtengo Laudioko Jaiak, zentzu batean. Ez da zezenketarik egongo, udalak hala erabakita. Egitarautik kanpo geratu da jaien azken eguneko zezenketa. “Azken urteetan nabarmena izan da ikusle kopuruaren jaitsiera”, azaldu du Amets Mea-

za jaietako zinegotziak. Horregatik erabaki dute bertan behera uztea ekintza.

Dena den, zezenak ez dira guztiz desagertuko, entzierroak egingo direlako. Zezen plaza jarriko da gainera, Zoroak koadrilak erabiliko baitu. besteak beste.



12:30 // **San Roke Musika**
Elkartearen kontzertua Aldai
Plazan



14:00 // **San Rokeren**
kofradiako kideen bazkaria
elizako arkupean




17:00 // **Erraldoi eta buruhandien kalejira**





www.kopas.es



www.kopas.es



Bulegoa-Erakusketa:

Alda. Urkijo, 88 - 2º
 48013 Bilbao - Bizkaia
 Tel: 94 442 22 24
 Fax: 94 439 97 69
kopas@kopas.es

Lantegia:

Aialako Industrialdea, 8
 01479 Murga - Araba
 Tel: 945 39 94 05
 Fax: 945 39 94 29
fabrica@kopas.es

Ideiak gauzatzen ditugu

















Trofeoak, kopak, txapelak, plakak, giltzatakoak, pin-ak, kamisetak, zapiak, mantalak, laser-grabatuak, metakrilatoa, promozio artikulua, instituzio sariak, merchandising, grabatuak, taillaketak, bordatuak, estanpazioak

kontzertuak

Laudioko Txosnak 2017

Egotetik egitera!

Abuztuak 15

ERROMERIA
TXIMELETA

RADIO REVOLUCION

ERROMERIA
URRATS

Abuztuak 25

**THE SOULBREAKER
COMPANY**

**PATXUKO
NICE**

**MARIANITZ
BLAI**

Abuztuak 16

CHILDRIN

**ESKEAN
KRISTO**

DJ TEMATIKOA

Abuztuak 24

ZAZKEL

HUNTZA

ERROMERIA
AKERBELTZ

Abuztuak 26

DISKO DANTZA



LAUDIOKO
TXOSNA
BATZORDEA

egotetik egitera!

HERRITARREI ZIRIKA

ZEINTZUK DIRA ZURETZAKO PARRANDARAKO ABESTI EGOKIENAK?



IÑAKI MOSKOSO URKIJO PIRULO TXOUKO KIDEA

1. The Offspring - Why Don't You Get A Job?
2. Dire Straits - Money for nothing
3. Reno Renardo- Crecí en los 80
4. Hertzainak - Arraultz bat pinu batean
5. Siniestro Total- Me pica un huevo



AIALA MENDIETA URREZTI ABESLARIA

1. Iseo & Dodosound - Lost City
2. Moonshine Wagon - Where the fuck are my friends
3. Arnau Griso - Para que el mundo vea
4. Lyrikan - Te sientes bien
5. Russ - Goodbye



PILI YÁÑEZ GUERRA ZUMBAZALEA

1. Amparanoia eta Esne beltza - Buen rollito
2. Muchachito bombo infierno - Ojalá no te hubiera conocido nunca
3. Gala - Come into my life
4. Camilo Sesto - Melancolía
5. Egan - Behin batean Loiolan




Gaztezu

IBONE SANCHEZ GARMENDIA

ATLETA

1. Betagarri - Txikia naiz
2. El Último Ke Zierre - Escupiré Jodidos
3. Dropkick Murphy's - I'm shipping up to Boston
4. Ramones - Do you remember rock 'n' roll radio?
5. Su Ta Gar - Jo Ta Ke



MIKEL MORENO FERNANDEZ MUSIKA EKOIZLEA

1. Alonzo - Suis moi
2. DJ Khaled - Wild Thoughts ft. Rihanna, Bryson Tiller
3. Future - You Da Baddest ft. Nicki Minaj
4. J Hus - Solo One
5. Juls feat Not3s, Kojo Funds & Eugy - Bad

**Gabonetako
loteria
hemen dago.**

**Ondo pasa
eskualdeko jaietan**

Zumalakarregi 3 - Anbulategiaren ondoan 01400 - LAUDIO
T. 94 672 04 93 - M. 652 77 81 37 www.lacasaderesa.com





▶ Txerri jasotzea patinetan

Hautsa kendu diegu VHS formatuan zeuden hainbat bideo zintari, eta aiaraldea.eus-en zintzilikatu ditugu 1986 eta 1992 urteetako irudiak: txerri jasotzea patinetan, koadrilen kalejirak, garaiko aldarrikapenak, txupinazoa, parandazaleen lekukotzak... Festen historian murgildu nahi?



BEREZI

taberna

• Askotariko pintxoak

• Gosariak 6:00etatik aurrera

• Ostiraletan Karaokea

Nerbioi kalea 34 (Zubiaur kaleko izkinan) LAUDIO 944 979 568



Ondo pasa jaietan!

Jose Arrue kalea, 7-A · 01400 Laudio · Tel.: 94 672 80 84 · Mov.: 630 823 006
e.mail: arazkigarbiketa@euskalnet.net



18:00 // **Kalejira** San Roke musika elkartearen eskutik

19:00 // Antzerkia herriko plazan: **"El asombroso Dave Wonderthing"**



20:00 // **Animazioa** gaiteroekin

21:30 // **KUKAI** dantza taldearen emanaldia Herriko Plazan: **"Hazipenen pozak"**

23:00 // Erromeria Zumalakarregi etorbidean **Honat** taldearekin



23:00 // **Kalejira** Sorginlarren Mitologia Taldearen buruhandiekin

23:30 // **Erroketxu txakurraren kalejira eta erreketak**



Latorroko Jaiak IRAILAK 15-17

09.15 OSTIRALA TXUPIN EGUNA

18:00 // **Danborrada** auzoan
barrena



19:00 // **Txupina eta kalejira**
buruhandiekin

20:00 // **Pintxo-potea**
Txosnagunean eta auzoko
tabernetan

20:30 // **Umeentzako**
Ikuskizuna, Untzeta plazan

23:00 // Kontzertuak: **Txapel**
Punk, Etsaiak Eroak eta
Diskodantza



09.16 LARUNBATA

08:00 // **IX. Mendi Martxa**
(Izen ematea txosnagunean.
Ohiko ibilbidea)



11:00 // **Puzgarriak,**
umeentzako tailerrak eta
jolasak, Kamaraka kalean

12:00 // **Igel-toka** txapelketa

14:30 // **Herri-bazkaria**,
Pagolar kalean



LATORROKO JAIETAN OSPATUKO DA EUSKAL HERRIKO MARMITAKO TXAPELKETA NAGUSIA



Maila handia egon ohi da Latorroko Marmitako Txapelketan. Aiaraldea.eus

Bereziak izango dira aurtengo Latorroko Jaiak. Ekitaldi berezi bat batuko da ohiko eskaintza bildumara: auzoan ospatuko da Euskal Herriko Marmitako Txapelketa. Ez da hori izango bitxikeria bakarra, 30. edizioa izango baita aurtengoa.

Hirugarren aldiz eskualdean

2003an egin zen Euskal Herriko Marmitako Txapelketa Aiaraldean azkenengo aldiz, Urduñan.

Laudion, baina, 1995 urtean egin da soilik. Gauzak hala, eskualdean egiten den hirugarren aldia izango da Latorrokoa, eta auzoko jaietan urtero ospatzen den marmitako txapelketaren lekua hartuko du.

Kamaraka kalean izango da zita, irailaren 17an. 10:00etan hasiko da lehiaketa, baina goizeko zortzieta-tikegongo da bertaratzeko aukera.

Egitaraua ez da kazolak pres-tatzera mugatuko, beste hainbat ekintza ere antolatuko dituzte, goiza are gehiago girotzeko. 11:00etan marmitako tailerra egingo dute, 10

eta 16 urte bitarteko gazteentzako. Ez da edonolako ikastaroa izango, Basque Culinary Centerreko ki-deek dinamizatuko baitute.

Slow Food Arabak ere hartuko parte egitarauan: dastamen laborategia eskainiko du eguerdiko ordu bietan, adin guztiei bideratuta. Herri bazkariarekin eta sari banaketarekin emango zaio amaiera programari.

Latorro, 30 urteko bidea

30 urte bete zituen iaz Latorroko Marmitako Txapelketak. 1987 urtean sortu zen, Laudioko Jaietako Untxi eta Tortilla Gastronomía Txapelketan. Bertan parte hartzen zegoen bikote gazte bati bururatu zitzaion jarduera hori antolatzea.

Pentsatu eta egin. Azkar lortu zuen txapelketak ospea eta prestigioa.

1990eko hamarkadan Arabako lehenengo Marmitako Txapelketa egin zen auzoan, 90 kazolaren parte hartzearekin.

Latorroko Jaiak IRAILAK 15-17

Nahiko gorabeheratsua da, baina, Euskal Herriko Txapelketaren parte hartzea. Iaz 69 kazola baino ez ziren aurkeztu, eta beste urte batzuetan 140tik gora egon dira.

Euskal Herriko txapelketaren 39 ediziotik 9tan Aiaraldeko parte hartzaileek jantzi dute txapela

Izan ere, Laudioko jendeak dilema batekin egin du topo urte askotan: Latorrokorra edo Euskal Herrikoarra joatearen artean erabaki behar izan dute, biak egun berean ospa-

tu direlako askotan.

Hala ere, parte hartze altua egon ohi da Latorron, herriko hainbat txoko eta koadrila bertaratzen baitira goiza su-gozotan igarotzen. Horregatik, aurtengo norgehiagoka jendetsua izatea espero dute la adierazi dute antolatzaileek, Latorroko eta Euskal Herriko parte hartzaileak batuko dituelako.

Areta txapeldun

Aiaraldearrek protagonismo handia izan dute Euskal Herriko Marmitako Txapelketaren historian. 39 ediziotik 9tan eskualdeko herritarrek irabazi dute lehen saria.

1986an Laudioko Gau Txoriak taldea geratu zen lehen postuan, eta Rakatapla 1993an. Iaz, aldiz, Orozkoko Beti Jai elkarteak eskuratu zuen saria, 2004an Aretako Ibai Alde taldeak, 2011n Atxarte txokoak eta 2002an Egoskaitz txokoak.

Baina txapeldunen ligan txapeldunik badago, Areta Beti da hori. Hiru aldiz jantzi dute txapela koadrila horretako kideek: 1996, 2003 eta 2008ko edizioetan.



Marmitako bazkaria egongo da txapelketaren ostean. Aiaraldea.eus



16:00 // **Mus txapelketa**, Gorbea kalean

17:30 // **IV. Ping Pong txapelketa**, Goikogane zelaian

22:00 // **Kale zinemaldia**, Kamaraka kalean

23:00 // Musika jaialdia: **Agian, Enkore, Diskodantza...**

09.17 IGANDEA EUSKAL HERRIKO MARMITAKO TXAPELKETA

10:00 // **Euskal Herriko XL. Marmitako txapelketa** eta Latorroko XXVIII. Marmitako txapelketa, Kamaraka kalean

11:00 // **10-16 bitarteko gazteentzako marmitako tailerra**, Basque Culinary Centerren eskutik

11:30 // **Umeentzako tailerrak**, NIREA proiektuaren eskutik

12:30 // **Showcooking saloa**, Basque Culinary Centerren eskutik

13:00 // Kazolak epai-mahaiaren aurrean aurkeztea. Jarraian, jajan aurreko txikiteoa

13:30 // **Dastamen laborategia**, Slow Food Arabaren eskutik



14:00 // **Zozketa**: Mariskada, hegaluzea, egonaldia hotel batean...

15:00 // **Marmitako bazkaria**, Kamaraka kalean

19:00 // **Txokolatada**, Pagolar kalean

20:00 // Jai amaiera, Pagolar kalean

Latorroko Jaiak IRAILAK 15-17

ETSAIAKEROAK, TXAPELPUNK ETA ENKOREK GIROTUKO DITUZTE JAIK



Etsaiakeroak taldea igoko da oholtzara, besteak beste. **Saioa Gauilunak**

Euskal Herriko Marmitako Txapelketa izango da Latorroko Jaiei ekintzarik esanguratsuena, baina ez bakarrik. Azken urteetako helburuei eutsiz, egitarau oparoa prestatu dute jai batzordeko kideek, irailaren 15etik 18ra luzatuko dena.

Gaueko eskaintzak izango du

pisu handia jaietan.

Ostiralean bi talde igoko dira oholtzara: Txapelpunk eta Etsaiakeroak (Etsaiak talde mitikoaren 30. urteurrena ospatzeko sortutako proiektua). Hortaz gain, eskualdeko talde batek ere eskainiko du kontzertua, eta disko-dan-

tza egongo da gero, gaua luzatzeko. Larunbatean, aldiz, Aiaraldeko Radio Revolución eta Bilboko Enkore taldeek joko dute, tokiko beste talde batekin eta diskodantzarekin batera.

Egun osoko eskaintza

Egitaraua, ordea, ez da gaueko parrandara mugatuko. Beste hainbat ekintza egongo dira. Ostiralean danborrada eskainiko dute Latorro Ikastetxeko haur eta gurasoek. Jarraian piztuko da festaren hasiera suziria, 19:00etan.

Larunbatean, aldiz, mendi ibilaldiarekin hasiko da eguna, eta beste hainbat jarduera egongo dira egunean zehar: igel-toka, mus eta ping-pong txapelketak, herri bazkaria edota kale-zinemaldia, besteak beste.

LATORROKO JAIK 2017

KONTZERTUAK
IRAILAK 15 OSTIRALA



IRAILAK 16 LARUNBATA




EUSKAL HERRIKO XL. MARMITAKO TXAPELKETA IRAILAK 17

IZENA EMATEKO ETA INFORMAZIORAKO EHMARMITAKO@GMAIL.COM @LATORROKOJAIK LATORROKO JAI BATZORDEA

UMEENTZAKO TAILERRAK GOIZ OSOAN ZEHAR. **nirea** PROIEKTUA. **hazi** FUNDAZIOA.
+ BCC-EN MARMITAKO TAILERRA

ADIN GUZTIENTZAKO BCC SHOWCOOKING ETA **Slow Food** DASTATZE LABORATEGIA

EGUN GUZTIAN ZEHAR PINTXOAK ETA FALZUE



alava
turismo.
eus



ARABAN 6 GALTZEKO IBILBIDE

- A** BIDEEN IBILBIDEA.
- B** ZENTZUMENEN IBILBIDEA.
- C** BIZIPENEN IBILBIDEA.
- D** TRADIZIOZKO BIZIMODUAREN IBILBIDEA.
- E** OROITZAPENEN IBILBIDEA.
- F** PARKE NATURALEN IBILBIDEA.



NATURA



ONDAREA



ENOGASTRONOMIA



TURISMO
AKTIBOA



FAMILIARENTZAKO
TURISMOA



EKITALDIAK



Arabian galtzeko ibilbideei buruz gehiago
jakin nahi baduzu, jo ezazu hona:

www.alavatourismo.eus/index.php/es/ibilbideak

visit
araba álava



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

OROZKOKO JAIAK

SANANTOLINAK [ABUZTUAK 31 - IRAILAK 4]

*Gora Orozko!
gora sanantolinak!*



Aurten ere Orozko-Laudio-Areta autobus zerbitzua egongo da bariku eta zapatu gauean



OROZKO
UDALA



Josu San Pedro
OROZKOKO ALKATEA

Argi dago denok nahi ditugula jai entretenigarriak eta gogoangarriak, baietz?

Bada, horretarako gakoa zeu zara. Lagun artean, familian... Izan parte, hartu parte! Antolinzaleak Jai Batzordeak jai-egitarau bete-betea prestatu digu. Ez galdu aukera, erdu!

Errespetua eta tolerantzia ere nahi ditugu jaietan, gogoratu: "ez" beti da "ez". Ez dezala inoren jarrerak bestearen jaia izorratu.

Zaindu ingurua eta ingurumena. Gure esku dago harro sentiaraziko gaituen herria edukitzea eta jai gogoangarriak izatea.

Aurtengo omenduak gogoan, herritik sortutako kultura eta hizkuntza ezagutu, babestu eta parteka dezagun, Blas de Otero zeneren baimenarekin:

"Al nacer, lo primero que hice-ron fue cercenarme la lengua.

Me dieron el cambiozo.

(...) Tenía perfecto derecho a disponer del idioma de mis antepasados. El que oía a mi abuela entre los manzanos y cerezos de la huerta. Protesto. Yo reclamo una lengua impagada".

Gozatu eta gozarazi euskaraz! Kalean ikusiko dugu elkar! Gora Orozko, gora sanantolinak!



Mafalda talde valentziarra izango da Zapatu Morean. Saioa Gauilunak

MAFALDA, LAGRIMAS DE SANGRE ETA ANEGURIA IGOKO DIRA HERRIKO OHOLTZETARA

Musika eskaintza anitz eta oparoa egongo da sanantolinetan. Hainbat estilotako taldeak taularutuko dira.

Horietako asko lan berria besapean dutela iritsiko dira Orozkora. Iaz argitaratu zituzten euren bigarren diskoak Mafalda eta Lagrimas De Sangre taldeek, eta horiek aurkeztera bertaratuko dira Orozkora irailaren 2an. Txosnagunean eta Gorbeia kaleko eszenatokian joko dute, hurrenez hurren.

Mafaldaren kontzertuaren ostean Aneguria rap abeslaria igoko da oholtzara, festa goizeko ordu txikietara arte luzatzeko.

Zopilotes Txirriaosek, aldiz, hirugarren diskoa *-Entre Atxunes y Culebras* deitutakoa argitaratu berri du. Radio Revolución eta Ezten Giro taldeekin batera joko du Txosnagunean, irailaren 1ean.

Jurgi Ibarretxe audioarrak eskualdeko beste musikari batzuekin sortutako cumbia estiloko taldea da Radio Revolución; emakume musikariekin osatutako erromeria talde gipuzkoarra da, aldiz, Ezten Giro.

Berbenak

Ez dira faltako ezta ere jaiak girtzeko erromeria eta musika jar-tzaileak. DJ Bull izango da lehena, abuztuaren 31n. Bere musika bilduma amaigabeko aleak jarriko ditu txosnagunean, dagoen jende eta giroaren arabera moldatuta. Oxabi berbenak joko du bihar-munean eta Joselu Anaia talde mitikoak, berriz, irailaren 3an.

Bestalde, musika eta antzerkia uztartuko dituzte Las Fellini talde ospetsuko kideek. Berakatz Egunean -Irailak 4- igoko dira Zubiaur Plazako oholtzara, 17:00etan.

08.31 EGUENA

19:00 // **Txupinazoa** eta kanpai hotsak



19:00 // **Eskupilota partiduak**



20:00 // **Dantza poteoa**

20:00 // **Sardina jana**

21:00 // Kontzertua: **DJ Bull, Txosnagunean**

09.01 BARIKUA UMEEN EGUNA

10:00 // **Pintura lehiaketa**, Zubiaur plazan

12:30 // **Joko-rallye txikia** (2-8 urtekoentzako) **zein handia** (8 urtetik aurrerakoentzat); eta **Motor-lasterketa** 2 urtetik gorakoentzako, Lehendakari Agirre plazan

17:00 // **IV. Mus txapelketa**, Batzokian



Jaietan ere, zuekin!

POLIGONO ARANTZAR, Nº 2 -01400
LAUDIO-LLODIO (Alava)

www.bebidasserrano.com
Tel. 94-672 97 90
info@bebidasserrano.com



17:00 // **Auto-zoro lasterketa,**
Itxina kalean

19:00 // **Mozorro lehiaketa,**
Zezen plazan



19:30 // **“Ezker-pareta”**
esku-pilota txapelketako finala

20:00 // **Pintura eta mozzorro**
lehiaketako sari banaketa, Zezen
plazan

20:30 // **Umeentzako afaria**
Zubiaur plazan

22:00 // Kontzertuak,
Txosnagunean: **Radio**
Revolución, Zopilotes Txirriaos
eta Ezten Giro

23:00 // **“Oxabi” erromeria**
Zubiaur plazan

09.02 ZAPATUA SAN ANTOLIN EGUNA

11:00 // **Garrafa lehiaketa,**
Zubiaur plazan

11:00 // Meza, San Antolin
ermitan

11:30 // **Pilota partiduak,**
plazako frontoian

12:00 // **Zekorrak** zezen plazara
ateratzea
(Eguraldiak galaraziz gero,
kolokioa Donibane Aretoan
izango da)

12:30 // **San Roque musika**
banda eta Ubixeta dantza
taldearen ikuskizuna, Zubiaur
plazan



13:00 // Garrafa lehiaketako sari
banaketa eta doako garrafa eta
limonada dastaketa



Blas de Otero eta José Arrue. Blas de Otero fundazioa / Gonzalo Gomez Arrue

BLAS DE OTERO ETA JOSÉ ARRUE OMENDUKO DITU JAIETAKO PREGOIAK

Berezia izango da aurtengo Sanantolinetako pregoiaren irakurketa, José Arrue margolariari eta Blas de Otero poetari omenaldia egiteko baliatuko baitute.

Biak ala biak bilbotarrak ziren, baina harreman handia izan zuten Orozkorekin. Arrue orozkoar batekin ezkondu zen eta 10 urte igaro zituen herrian bizitzen. Inspirazio iturria izan zen berarentzat

herria. “Orozko zen Arruerentzat euskal kulturaren leku adierazgarriena”, azaldu du Felix Mugurtza adituak.

Blas de Oterorentzat ere oso toki garrantzitsua izan zen udalerrria. “Berak zioen Orozko zela bere benetako aberria”, adierazi du Ibon Arbaizak. Blas de Otero fundazioaren zuzendariak azaldu du poetak uda ugari igaro zituela bertan, se-



Berazan antzeztuko da Jose Arrueren “Erromeria” koadroa. José Arrue

nide ugari zituelako: “Errekan bainatzen zen, pilota partiduak jokatu zituen frontoian... Zekor bat toreatzera ere iritsi zen jaietan”. Herriarekiko zuen maitasuna islatua geratu zen bere ibilbide literarioan. “Olerki askotan egiten dio erreferentzia Orozkori, Bilbo ‘ilun eta industrialarekin alderatuta”.

Bi artistentzako inspirazio iturria izan zen Orozko. Oterok hainbat olerkitan aipatzen du herria, eta Arruek margolan ugari egin zituen bertan

Izen handiko sortzaileak

Figura garrantzitsuak izan ziren Otero eta Arrue, bakoitza bere alorrean. “Euskal Herriko margolarien artean Arrue da munduan ezagunena eta bere estilo bereziagatik errazen identifikatzen dena”, ziurtatu du Mugurutzak. “XIX. mendearen amaierako gizartea ikertzeko ez dago bere lana bezain onik. Komiki itxurako irudi haiek gogorki kritikatu zizkionten bere garaian, baina oso arrakastatsuak izan ziren eta imitatzaile eta, areago, faltsifikatzaile andana izan zuen atzetik”.

Otero, aldiz, Federico Garcia Lorcarekin parekatu daiteke, Arbaiza-

ren ustez. “Maila berean jartzen dute hainbat literatur kritikarik, XX. mendeko oso figura garrantzitsuak izan zen”.

1977 urtean hil zen Arrue, Laudion. Handik bi urtera zendu zen Otero, Madrilén. Bi artisten senideekin jarri dira harremanetan jai batzordeko kideak, pregoian parte hartzea proposatzeko, baina oraindik ez dute zehaztu nola egingo den ekitaldia.

“Erromeria” lana, antzezpen

Arrueren figurak zeresana emango du sanantolinen ostean ere. Margolariaren “Erromeria” koadroaren antzezpena egingo dute Beraza auzoan, margolana egin zen toki berean. Bideoz grabatuko dute ekimena, Anton Lazkanok zuzendutako dokumental baten parte izango baita.



18:30 // **Zekorketa**,
Salamanca Charro de Llén
ganadutegiko 4 zekorrekin

ZAPATU MOREA Txosnagunean

19:00 // **“Mamiki”** batukadaren
kalejira

20:30 // Kancaneo taldearen
“Pa ti pa mi” antzerki-obra

21:30 // **Ekitaldi feminista**

00:30 // **“Mafalda”** taldearen
kontzertua

02:00 // **Ane Gurlaren**
kontzertua, txosnagunean

20:30 // **“Los Txamukos”**
marlatxiak, Zubiaur plazan

23:00 // **Irrintzi txapelketa**,
Zubiaur plazan





OSABARENA
NEKAZAL HOTELA
HOTEL RURAL
NHR



Ondo pasa
jaietan!



LAUDIO LLODIO
N-252
MURUETA
OROZKO

**JAIETAN
TALDEEI
EGOKITUTAKO
MENUAK
DAUZKAGU!**

MURUETA 14.48410 OROZKO WWW.OSABARENAHOTEL.COM TEL: 94 6941146 **OSABARENA**  NEKAZAL HOTELA
HOTEL RURAL



Hilean Bariku Bat taldeko kideak, Orozkoko plazan. **Nora Latatu Landaluze**

“WORLD TOURRA” EGINGO DU HILEAN BARIKU BAT TALDEAK AUZORIK AUZO

Orozkoko Jaietan protagonismo berezia izango duen musika talde bat baldin badago, “Hilean Bariku Bat” da. Zaloako Jaietan jo zuten uztailean, eta beste hainbat kontzertu dituzte lotuta: Ibarrako festetan -abuztuaren 15ean-, sanantolinetan -irailaren 3an- eta Berazako San Migeletan -irailaren 30ean-.

“World tourra” deitu diote Orozkotik mugitu gabe egingo duten birari. Umorea, behintzat, ez zaie falta. “Hori da gure bertuterik nabarmenena”, azpimarratu dute proiektuko kideek, “taula gainean oso ondo pasatzen dugula eta hori transmititzen diogula publikoari”.

Duela bi urte hasi zen egitasmoa, Orozkoko txosnetako jam sessionetan. Gaztetxera mugitu ziren gero saio inprobisatu horiek. Hilero biltzen ziren, ostiraletan; hortik dator taldearen izena. Gaztetxea itxi zenean, baina, bertan behera geratu zen ekimena, harik eta aurtengo udaberrian Jentilzulo kulturgunean martxan jarri zuten arte.

Gaur egun hiru trikitixa, baxujole bat, bi abeslari eta lau perkusionista daude taldean. Bertsioak egiten dituzte gehienbat, baina abesti propio bat ere konposatu dute: “Ez dugu asmo zehatzik, denera irekita gaude”.



Egunsetian hasten gara lanean, joan zaitetz etxera ondo gosalduta!



Kurtzeaga, 3 - Tel. 946 61 00 68
OROZKO
TIENDA: Zumalakaregia, 30
Tel. 946 72 84 94
LLODIO

okindogiazahonpanaderia@gmail.com



Artisau-okiñdegi honen hirugarren belaunaldia. Maitasunez eskuz egindako ogi naturala;

- * Oie-amaz egina
- * Gehigarri kimikoen gabe
- * Harritzko errotako irin ekologikoak
- * Hartzidura prozesu luzea
- * Eskuz egina
- * Labeko harrian erreta

Jaiak bai, ogia ere bai!



23:00 // Kontzertua **“Lágrimas de Sangre”** taldeagaz, Gorbela kalean

1:00 // **Disko dantza**, Zubiaur plazan

09.03 **DOMEKA** JUBILATUEN EGUNA

10:00 // **Marmitako lehiaketa**, Eskolako patio estalian

11:00 // **Kalejira**

11:30 // Meza, San Juan parrokian

12:00 // **Dantzaldia** Ubixeta dantza taldeagaz

12:00 // **Zekorrak** zezen plazara ateratzea (Eguraldiak galaraziz gero, kolokioa Donibane Aretoan izango da)

12:30 // **Herri kirolak**, Zubiaur plazan

13:30 // **Bertso saloa** Zubiaur plazan: Onintza Enbeita eta Ibon Ajuria

14:15 // Marmitako lehiaketaren sari banaketa

14:30 // **Jubilatuena bazkaria**, Eskolan

18:30 // **Zekorketa**

20:30 // **Joselu Anaiak** Zubiaur plazan



21:00 // **Elkartasun afaria eta musika ekitaldia “Hilean bariku bat”**





Iaz egin zen Zapatu Morea lehenbiziko aldiz. **Julen Zubiete**

ALAITZ ARAMENDI IZANGO DA TXOSNAGUNEKO EGITARAUAREN PROTAGONISTA NAGUSIA

Pisu nabarmena izango du Alaitz Aramendik Txosnaguneako egitarauan.

Sanantolinen bigarren egunean -irailak 1- 10 urte beteko dira atxilotu zutenetik. Gauzak hala, bere egoera salatza bideratuak egongo dira aurtengo festetako hainbat ekintza.

Aramendiren kasua izango dute hizpide Zapatu Morean, ekimen horren antolatzaileek aurreratu dutenez. “Alaitzen egoeratik abiatuta emakume guztiok pairatzen dugun zapalkuntza salatuko dugu”. Iaz egin zen Zapatu Morearen lehen edizioa, Matxintxu emakume elkartearen eta Gazte Asanbladaren arteko elkarlanari esker: “Espero baino arrakasta gehiago izan zuen, eta ildo horretan sakonduko dugu aurtén”.

Irailaren 2an izango da zita, San Antolin Egunean. Kalejira egongo da lehenbizi, “Mamiki” batukadarekin. Kancaneo antzerki taldearen “Pa ti pa mi” lana ikusi ahal izango da gero, eta horren ostean egingo dute ekitaldia. Mafaldak eta Aneguriak emango diote amaiera egunari. “Aneguria emakumezko

rap abeslaria da; eta Mafaldak, gizon ezko taldekideak baditu ere, aldarri feminista ugari plazaratzen ditu”, azaldu dute antolatzaileek.

Elkartasun afaria

Hurrengo egunean -irailak 3- egingo dute elkartasun afaria Txosnagunean.

Aramendiren aurkako epaia salatzea izango da ekimen horren xedea. Hilean Bariku Bat taldea izango da afalostea girotzearen ardura duna. 535 urteko kartzela zigorra ezarri zioten preso politiko oro-koarrari uztaillean, ekintza armatua egotzita.

09.04 ILENA
BERAKATZ EGUNA

12:00 // Joko poteoa



15:00 // **Herri bazkaria**, frontolan

17:00 // “**Las Fellini**” taldearen ikuskizuna, Zubiaur plazan



19:00 // Koadrilen arteko **Bigantxa-jokoak** zezen plazan

21:00 // Musika ikuskizuna “**Ladies Band**” taldeagaz, Zubiaur plazan

23:00 // **Txokolatea**, Zubiaur plazan

23:30 // Jaien amaiera

JATETXEA
RESTAURANTE

ARRUGAETA

- Urtero bezala, bokatak eta kazolatxoak
- Abuztuaren 31tik irailaren 4ra arte kartako bazkariak

Zubiaur plaza,8
48410 Orozko (Bizkaia)
94 661 00 01

Berazako Sanmigelak IRAILAK 28-31



The Pushermen taldeak joko du ostiralean. **Saioa Gauilunak**

THE PUSHERMEN ETA JOSELU ANAYAK TALDEEK GIROTUKO DITUZTE BERAZAKO JAIK

Festa ez da berehalakoan amaituko Orozkon. Sanantolinei aguresan eta bi astera hasiko dira hurrengo jaiak: Beraza auzoko sanmigelak.

Ohiko egitura mantenduko dute: ostegunean hasiko dira -irailak 28-, igandean amaitzeko. Ez dira faltako ohikoan egiten diren ekintzak. Umeentzako eskaintza oparoa egongo da, aurreko urteetako ildoari jarraiki. Ostiralean birziklatzeko tailerra egingo dute 17:30ean, eta handik ordubetera hasiko da euskarazko “Dr. Bubble & Mc Fly” ikuskitzuna umoretsua, familian gozatzeko

aproposa. Paella eta mus txapelketak, herri bazkaria, euskal dantzak eta “soplagaiten” kalejira ere egongo dira, asteburuan.

Musika eskaintza

Musikako esparruan daude berrikuntza nagusienak. Aiaraldeko The Pushermen taldeak joko du ostiralean, auzoa 60-70. hamarkadako abesti mitikoen bertsioekin animatuz. Larunbatean, aldiz, Joselu Anayak eta Hilean Bariku Bat taldeek girotuko dituzte arratsaldea eta gaua.



Birziklatze tailerra egongo da umeentzat. **Aiaraldea.eus**

09.28 EGUENA

18:30 // **Lehen suziariaren** jaurtiketa eta kanpai-hotsa

09.29 BARIKUA MIKEL DEUNA

12:00 // Mikel Deunaren ohorezko meza santua

17:30 // Tailerra: **Birziklatu eta jolastu**

18:30 // Pailazoak: **“Dr Bubble & Mc Fly”**

Ondoren txokolatea ume guztientzako

21:00 // Kontzertua **“The Pushermen”** taldearen eskutik: 60-70 hamarkadetako musika baltza: Jazz-Funk, Soul, Blues eta Rhythm, Blues Rock eta Latin

Bitartean pintxo-potea: Sardinak, urdaila...

09.30 ZAPATUA

14:30 // **Herri Bazkaria**. Izena emateko azken eguna: irailaren 20a Orozkoko tabernetan

17:30 // **XXI. Mus Azkar Txapelketa**

19:00 // Kontzertua **“Hilean bariku bat”** taldearen eskutik Ondoren: Barbakoa.

21:30 // Gau-jaia **“Joselu anayak”** taldearen eskutik

09.31 DOMEKA

11:00 // **XXII. Paella Txapelketa**
Sariak: 1. 80 eta oparia
2. 40 eta oparia
3. 20 eta oparia

Goiz guztian kalejira egongo da **“soplagaitak”** alaiturik.

11:30 // Auzoko defuntuen ohorezko meza santua

Meza ostean: **Euskal Dantzak** Ubixeta dantza taldearen eskutik

13:30 // **Paellen aurkezpena eta sari banaketa**
Ondoren zozketaren zenbakia aterako da
Bazkal ostean **bingoa eta aulkien jokia** egingo dira

Orozkoko auzoetako jaiak ABUZZTUA-IRAILA

IBARRAKO JAIK 2017

08.14 ASTELEHENA

20:00 // Txupinazoa

21:00 // Txorizoa doan

22:00 // Erromeria **Joselu Anaiak** taldearekin



08.15 MARTITZENA ANDRA MARI

12:30 // **Meza** nagusia

13:30 // **Triki poteoa**

18:00 // **Mus Txapelketa**

20:00 // **Mozorro lehiaketa**



21:00 // **Salheskia** dohain



21:00 // **Hilean Bariku Bat eta dantza lehiaketa**
-atsedenaldian-



08.16 EGUAZTENA SAN ROKE -UMEEN EGUNA-

12:00 // **Paella Lehiaketa**
-izen-ematea-

12:30 // **Meza** nagusia

13:30 // **Triki poteoa**

13:30 // **Umeentzako puzgarriak eta jolasak**

14:30 // **Paellen aurkezpena**
Sariak:
1. 120 euro
2. 60 euro
3. 40 euro

15:00 // **Herri bazkaria**

17:00 // Puzgarriak eta jolasak

18:30 // **Bits jala**

19:30 // Txokolatada

20:00 // **Arrufiaren zozketa**



GOIKIRIKO JAIK 2017

09.08 / 09.18

Irailaren 8an eta 18an ospatuko dira Goikiriko Jaiak. Egitaraua oraindik ez dago guztiz itxita, baina antolatzaileek aurreratu dute hainbat ekintza egingo dituztela: tortilla eta paella txapelketak, dantzaldia, meza...



URIGOITIKO JAIK 2017

08.13 IGANDEA

12:30 // **Meza**

13:00 // **Kalejira gaiteroekin**
-Basauriko Haize Doinu Taldea-



JATETXE IZA

*Afari eta bokata
egin berriak
jaietako egun
guztietan,
20:30etik 00:00ak
arte*

*Jai
zoriontsuak
opa di-kizuegu!*



Gorbeia kalea 7 (Orozko) / 946 610 003

ARTZINIEGA JAIK

ARTEKO GURE AMA [IRAILAK 01 / 10]


Ospatu, gozatu eta elkarbanatu!



Iñigo Gomez
ARTZINIEGAKO ALKATEA

Esperoan eta gogotsu gaude, Arteko Gure Amaren ohorezko hurrengo jaiei so. Festak gozamenaren eta elkarbizitzaren eredu izatea espero dugu, guztiok izan ditzagun 2017 jaietatik oroitzapen eder bat eta arrakasta bat parte hartzean, edozein erasotik libre.

Udaletik festan murgiltzera gonbidatu nahi ditugu auzokideak eta herrira irailaren 1etik 10era bitartean bertaratzen den pertsona oro. Hori baita jai bat handi egiten duena: parte hartzea, jarrera parte hartzailea, festarako, ilusiorako eta alaitasunarekiko alde z aurretiko jarrera. Kontzertuek, kalejirek, lehiaketek, herri kirolek eta dastaketek betetzen dute jaien maitaleek jaien maitaleentzako sortutako programa. Ekin-tza horiek ez dira ezer ez badago horiek bizitzeko alaitasunik, ez dira ezer barrerik gabe, sortzen duten ilusio eztanda gabe. Artziniegako Jaiak jendea dira: bere jendeak, gizon eta emakumeak dira, txikiak, nagusiak, horkoak eta hemen-goak, helburu komun batekin: ospatzea, gozatzea eta elkarbanatzea.



Artziniega
Ayuntamiento



Artziniegako
Udala



Argentinarez osatutako Bartzelonako talde ezagun bat da Che Sudaka. **Alter1fo**

CHE SUDAKA ETA JOXE REPLAY TALDEEK MESTIZAJE DOINUEZ BETEKO DITUZTE JAIK

Doinu nahasketak izango dira nagusi Artziniegako Jaietan. Irailaren 8an Havana 537, Che Sudaka eta Joxe Replay taldeak igoko dira oholtzara, munduko hainbat txokotako musiken arteko mestizajea eginez. Hurrengo egunean, aldiz, rock doinuak nagusituko dira herrian, The Last Beer taldearen eskutik.

Musikaz harago, ez dira faltako ezta Artziniegako jaien ikur bihurtu diren ekintzak: Iturritik iturri-
ra kronoeskalada, koadrilen arteko afaria, Arteko landatik jaitisiera... Iaz lehen aldiz eginiko Gazte Eguna errepikatuko da aurten. Irailaren 4an ospatuko da eta magia izan-

go du ardatz: ilusionismo tailer eta ikuskizunak egongo dira arratsaldean, udaletxean.

Antolakuntzan aldaketa

Jaien antolakuntzan eman da aurtengo berrikuntza nagusia. Udala arduratu da festak aurrera ateratzeaz, ez delako lan-talderik sortu jaiak aurrera ateratzeko.

Aurreko urteetan bezala, bus zerbitzua egongo da irailaren 8an, nahi duen aiaraldear orok herrira bertaratu eta parranda botatzeko aukera izan dezan. Okondo, Laudio, Luian-
do, Amurrio eta Arespalditzatik igaroko da busa.

09.01 OSTIRALA

20:30 // **Zurrapapotea** Goiko Plazan



21:00 // **Pregoia eta txupinazoa**, Goiko Plazan



21:30 // **Kalejira** erraldoi eta buruhandiekin

22:00 // Tokiko pilotarien **partiduak**

23:30 // **Joselu Anaia** taldearen erromeria

1:30 // **Kantzontzilo eta kulero lasterketa**

2:00 // **DJ Markelin**

09.02 LARUNBATA

12:00 // **Pintxo lehiaketa** Goiko Plazan

13:00 // Bonbona Lasterketari buruzko **argazki-erakusketaren inaugurazioa**

14:30 // **Babarrun-jana** herrikoia

16:30 // **Dantza-plaza**, bazkalostean

18:00 // **Igel-toka** txapelketa



Jai Zoriontsuak!



1929 urtetik
LA ENCINA
RESTAURANTE

• Astelehenetik ostiralera
EGÜNEKO MENUAK
• Taldeentzako,
ospakizunentzako...
MENU BEREZIAK

GARAY ETORBIDEA 4.
01474-ARTZINIEGA (ARABA)

ERRESERBATZEAK
945 39 60 40 / 945 39 62 55

BONBONA LASTERKETA, 25 EDIZIO DIRUA IRUDIMENAGATIK ORDEZKATZEN



Jailetako ekintza zaharrenetako bat da bonbona lasterketa. **Valentin Campo**

Egiten den hogeita bosgarrena izango da aurtengo bonbona lasterketa. 1993. urtean sortu zen ekimena, eta Artziniegako Jaien ekintza esanguratsuetariko bat bilakatu da.

“Platero y tu taldearen kontzertu bat ekarri nahi genuen herrira, eta lortu genuen, baina jaien aurrekontu gehiena inbertitu behar izan genuen horretan. Horregatik, irudimena apur bat zorroztu behar izan genuen gainontzeko gauzak antolatzeko, egitasmo merke eta parte hartzaileak izan zitezen”. Horrela sortu zen bonbona lasterketa, Valentin Camporen hitzetan.

“Gipuzkoako herri batean lasterketa bat egiten zutela entzun genuen, zeinetan bonbona bat igotzen zuten mendi batera”, azaldu du Goma-2 taldeko kideak. Hortik hartu zuten ideia, eta modu horretan egin zuten lehen edizioa.

Ordutik hona ez du aldaketa askorik izan ekimenak. Umeentzako Garrafa Lehiaketa da gehitu duten

nobedade bakarra. “Toki berean egiten jarraitzen dugu, Goienkalen gora eta behera”.

Baina badago zerbait urtez-urte aldatzen dena: bonbona bera. Koadrilako kide baten etxetik hartzen dute, eta unean duen gasaren arabera gehiago edo gutxiago pisatzen du.

Parte hartzeko modua ere egokitu da, Camporen ustez. “Profesionalizatu egin da lasterketa, nolabait esateko”. Jantzkeran nabari du hori: Koadrila arropak soinean egiten zuten lehen korrika jende gehienak, baina geroz eta gehiago dira kirola egiteko praka eta oinetakoe-kin agertzen direnak.

100 argazki

Campok aurreratu du argazki erakusketa bat egingo dutela jailetan. 100 irudiz osatutako bilduma plazaratu nahi dute 25 edizioetan egondako bilakaera islatzeko. Herriarrei eskatuko diete laguntza horretarako.



19:30 // **Bonbonen XXV. Lasterketa eta Garrafoien XI. Lasterketa**



22:00 // **VII. Playback Txapelketa**

00:30 // Maketa lehiaketako irabazleen **kontzertua**

2:00 // **Diskodantza**

09.03 IGANDEA

11:00 // **Meza** Arteko Gure Ama santutegian

11:45 // Arteko Gure Amaren ohorezko **39. enkatea**

13:30 // **Umeentzako “Tabernaz-taberna” lasterketa**, Barrenkalen

18:00 // **X. Kronoeskalada** iturritik iturrira



21:00 // **Berakatz zopa**, Artekalen

09.04 ASTELEHENA GAZTE EGUNA

11:00 // **Ginkana kulturala**

14:30 // **Bazkaria** Goiko Plazan

16:30 // **Joko zoroak**



19:30 // **Karaokea**





18:00 // **Magia tallerrak**

18:30-19:30 // **Hurbileko magia**

20:00 // **Magia ikuskizuna**

09.05 ASTEARTEA UMEEN EGUNA

11:30 // **Txokolate jana**

11:30 // Umeentzako **tallerra**, eskulanak

14:30 // **Bazkaria eta jolasak** La Encinako zelaian

16:00 // Umeentzako **parkea**

18:30 // Txirrindularitza **ginkana**

19:30 // Umeentzako **playbacka**

09.06 ASTEAZKENA

Multiaventura, frontenisa eta artzikirola (orduak zehazteke)

KOMANDO ROTONDA TALDEA IZANGO DA JAIETAKO PREGOILARIA

Komando Rotonda taldea izango da Artziniegako Jaietako pregoilaria. Bozketa herritarren bidez ebazti da hautaketa. Komando Rotondak 112 boto jaso ditu, 109 Goma Bik eta 29 GApek.

Sare sozialetan eta udaletxean jarritako ontzien bidez bideratu da bozketa. Proposamenak jasotzeko epea ireki zen lehenbizi, eta hiru aukeratuenak -aipatutako hiru taldeak- igaro ziren azken fasera. Duela zazpi urte sortu zen Komando Rotonda taldea. Arenaza auzoaren independentzia aldarrikatzea du helburu, umorea baliatuta.

Kritikak

Goma Biko kideek, baina, bozketan parte hartu nahi ez zutela

adierazi zuten, ez zaielako egokia iruditzen pregoilaria aukeratzeko modua. "Facebookeko atsegiteen arabera hautatzea guztiz desegokia iruditzen zaigu", salatu dute, eta gaineratu dute ez zaiela "poltronan edozein preziora" egotea gustatzen.



artziniegako enpresa eta
merkataritza elkarteak

Artziniegako
enpresa eta
merkataritza
elkarteak
jai zoriontsuak
opa dizkizue!

Artziniegara etor zaitez eta jaietan gozatu!

JAIETAN JOKO DU ARTZINIEGA KO MAKETA LEHIAKETAREN IRABAZLEAK



Astarte taldeak irabazi zuen lehiaketa iaz. **Burubio Kultur Elkarte**

Maketa lehiaketa jarri du abian Artziniegako Rock Elkarteak, bigarren urtez jarraian. Iaz egin zuten lehen edizioa. "Oso ondo atera zen, maila oso ona zeukaten talde eta bakarlariak aurkeztu ziren, estilo anitzekoak", azaldu du elkarteak kidea den Xabier Vellek.

Aurten ere festetan jotzeko parada izango du epaimahaiaren saria irabazten duenak. Irailaren 2an eskaini beharko du kontzertua.

Abuztuaren 13a izango da lehia-

ketara aurkezteko azken eguna. Baldintza bakarra bete behar da horretarako: taldeko kide bat gutxienez izatea Aiaraldekoa edo Enkarterrikoa. Errolda ziurtagiria eraman beharko du ordezkari horrek.

Hortaz gain, 3-5 abesti aurkeztu beharko ditu parte hartzaile bakoitzak. Bi telefono zenbaki luzatu dituzte rock elkarteak kideek, zalan-tzak argitzeari begira: 652 74 38 72 eta 626 65 72 61.

09.07 **OSTEGUNA** NAGUSIEN EGUNA

13:00 // **Meza** parrokian

14:30 // **Bazkaria** frontoian
Bazkalostean **bingoa**

19:00 // **Musika emanaldia**

21:00 // **Korterraza** filma laburren emanaldia Artekaleko plazan

09.08 **OSTIRALA** ARTEKO GURE AMAREN EGUNA

12:00 // **Meza eta lore eskalntza**
La Encinako Ama Birjinari

18:00-21:00 // **Frontenis eta artzikirol** finalak



21:00 // **Koadrilen afaria**



23:00 // **Havana 537** taldearen kontzertua



1:00 // **Che Sudakaren** kontzertua

2:30 // **Joxe Replayren** kontzertua




Aure Segurier



ARTZINIEGA KO GASOLINDEGIAK jai zoriontsuak opa dizkizue!

Arteko Gure Ama Jaia IRAILAK 1-10

www.aiaraldea.eus



Jailetako aspaldiko argazkiak

Artziniegako Jaien hainbat garaietako argazkiak bildu ditu Jose Luis Gotxi Fernandezek. Aspaldiko koadrilak, asto lasterketa, Oskorrik eskainitako kontzertua... Iraganeko hainbat une gogoangarri jasotzen dituzte irudiek.



09.09 LARUNBATA

14:00 // **Bazkaria** Arteko zelaian



17:30 // Adin guztientzako **jokoak**



19:00 // **Salbea** Arteko Gure Amari, santutegian

19:30 // **Jeltsiera herrira** Akelarre fanfarrearekin



21:00 // **Pilota partiduak**

23:00 // **Berbena**

00:30 // Kontzertuak: **Last beer**

02:00 // **Berbena**

cafeteria
ITURRIALDE

Artetikale kalea 41
ARTZINIEGA
945 39 61 29



LEHEN ORDUTIK ZABALIK



BOKATAK
HANBURGESAK
ERRAZIOAK
PINTXOAK

OSTIRALETAN
PINTXOPOTEA



OSTEGUNETAN
GARAGARDO EGUNA:
19:00etatik 22:00etara
ZURITO + PERNILA
ZARTAGINKADA 1,3€

FUNANBULISTAK ETA KONTZERTUAK, **AZOKAREN XX. EDIZIOKO BERRIKUNTZAK**



Antzinako XX. Azoka izango da aurtengoa. **Aiaraldea.eus**

20 urte beteko ditu irailean Artziniegako Antzinako Azokak. Gorabeheraz betetako ibilbidea egin du egitasmoak: Etnografia Museoaren ekimenez sortu zen, herriaren jaiotzaren 500. urteurrena ospatzeko. Museoak antolatu zituen lehen hiru edizioak. Bolaretxe koadrilak hartu zuen gero ekimena prestatzearen ardura. Udalak hartu zuen lekukoa handik urte batzuetara, harik eta jaia antolatzeari utziko ziola iragarri zuen arte. Herriko ostalari talde batek hartu zuen orduan haien gain prestaketa, eta horretan dihardute gaur egun.

Berrikuntzak

Lau dira antolakuntzan dauden tabernak: La Villa, Batzokia, El Plaza, Kobá eta Ostargi. Azken bien jabea da Marta Urruela. Aurtengo azokan egongo diren nobedadeen berri eman du: "Iazko dantza bertikal ikuskizuna errepikatuko dugu aurten, harrera ona izan baitzuen". Gaineratu duenez, aurten funan-

bulista baten emanaldia ikusteko parada egongo da ere.

Hala, ekintza batzuk erantsi eta beste batzuk baztertu egin dituzte, Erdi Aroko borroka kasu. "Iaz egin zen lehenbiziko aldiz, eta ez zuen interes asko sortu herritarrengan", azaldu du Urruelak.

Egun osoko egitaraua

Goizetik gauera arte luzatuko da egitaraua irailaren 16an. Urtero bezala, Erdi Arora itzuliko da Artziniega. Dozenaka herritarrek hartzen dute parte ekimenean, euren burua mozorrotzen edota herrian dauden elementu moderno guztiak -farolak kasu- estaltzen. Gau partean musika doinuek hartuko dute hirigune historikoa, Izera taldeak kontzertua eskainiko baitu. Urruelak ohartarazi du geroz eta gehiago kostatzen ari zaiela azoka egitea. "Geroz eta jende gutxiago gaude antolakuntzan, baina oraindik badugu aurrera jarraitzeko indarra".

09.10 IGANDEA

09:00 // **Tortilla eta Marmitako Txapelketa** Goiko Plazan



11:00 // **Kadeteentzako bizikleta lasterketa**: Arteko Gure Amaren XXVI. Saria



12:00 // **Konpostaje kit-ak**

17:00 // **Mus Txapelketa**, udal kiroldegian

17:30 // Koadrilaren arteko **herri kirolak**



20:00 // Erromeria Mikelekin

20:00 // **Odoloste dastaketa** Goiko Plazan

20:30 // **Argazki proiektzioa eta argazki lehiaketaren sari banaketa** udaletxe zaharrean

21:00 // Koadrilaren arteko **sari banaketa**

21:30 // Jaiaren amaiera **traka**

Jaiak darrai...





GUREKIN
ERE
EUSKARAZI!

NEURRIRA EGINDAKO JAIETARAKO PRODUKTUAK

KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU ///

SERIGRAFIA, BORDATUA,
BINILOA, INPRESIO DIGITALA



Graf!k

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com



ERRAZA.
MUGIKORRA IZANDA,

MUGIKORRAZ ORDAINDU

Deskargatu App-a



LABORAL
Kutxa Pay



Mugikorra baduzu, ordaintzeko modu berria duzu. Mundu guztiak ordain dezake **LABORAL Kutxa Pay App**arekin. Erraza da. Erosoa. Eta segurua.

Appa, hi! Eguneratu eta hasi orain mugikorrarekin ordaintzen.

DENA BERDIN, DENA BERRI



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat